

# elkar

NEGUA 2023
74. ZENBAKIA

www.elkar.eus

## KARMELE JAIO

*Maitasun kapitala*,
Maitasuna deitzen diogun horretan arakatzen

+

## MARÍA FERNÁNDEZ-MIRANDA

*El enigma Balenciaga* da luz a un coloso casi desconocido

## BERNARDO ATXAGA

*Paradisuaren kanpoko aldeak*, ezohiko liburua

## IZEN PROPIOAK:

Juan del Val · Uxue Alberdi · Begoña Pro · Goiatz Labandibar · Itziar Diez de Ultzurrun · Juan Lekue · Jon Maia
Antton Olariaga · Irati Jimenez · Eneko Aizpurua · Esther Van den Berg · Marrakatue · Korrontzi · Juan Luis Zabala

8435226191416

# IRRIA

**Urtean 10 zenbaki**
etxeko txikienen artean irakurzaletasuna, sormena eta ahozkotasuna sustatzeko

## ipuinak, komikiak, zientziako infografiak, denbora-pasak, jolasak, eskulanak




Egin IRRIAren harpidetza, eta baliatu gure eskaitza berezia: **10 €-ko bonoa** Elkar dendetan erabiltzeko




URTEKO HARPIDETZA
**49€**

## NON EGIN HARPIDETZA?

- Elkar dendetan
- Katxiporretaren ikuskizunetan
- (0034) 943-30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus orrian
- www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian

berria elkar Katxiporreta IRRIEN LAGUNAK www.irrienlagunak.eus




MARRAKATUE




elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)**
Telletxe 11
94 491 66 16

**ARRASATE**
Erdikokale 14
943 79 78 29

**BAIONA**
Gouverneurs 9
559 59 35 14

**BARAKALDO**
Merindad Uribe 14
944 37 22 76

**BASAURI**
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

**BERGARA**
Ibargarai 7
943 76 40 50

**BILBO**
Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Zamudioko ataria Zazpikale
94 416 14 50

Iparragirre 26
94 424 02 28

**DONOSTIA**
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Bergara 6
943 42 63 50

**GASTEIZ**
San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarrak 1 Campus
945 14 16 70

**HERNANI**
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

**IRUN**
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

**IRUÑEA**
Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9
948 17 55 38

**TOLOSA**
Arostegieta z/g
943 67 35 33





# KARMELE JAIO




**MAITASUN KAPITALA**
Karmele Jaio
ELKAR

**Eleberri berri bat dakar Karmele Jaiok: *Maitasun kapitala*. Aurreko bere nobelan (*Aitaren etxea*) maskulinitatearen eraikuntza deskribatzen eta auzitan jartzen zuen moduan, honakoan emakumezkoei maitasuna bizitzeko eta sentitzeko erakutsi zaien era da deseraikitzen dena, kontakizun sendo eta pertsonaia sinesgarri batzuen bitartez.**

**Eleberriak irudi batetik tiraka eraikitzen dituzula esan izan duzu. Kasu honetan, zein izan da abiapuntuko irudia?**
Emakume bat, bere maitalearen hiletan, bere buruari galdetuz zein den hildakoaren benetako alarguna.

**Bere maitaleak abandonatu duen andrazkoaren historia dugu hau; berez, sarri landu den gaia; zer berritasun dakar zure ikuspegiak?**
Gai guztiak landu dira sarritan, berezi egiten dituena beti da idazlearen begirada. Ni kasu honetan saiatu naiz emakume horren minetik edo haserretik harago joaten, eta ikusten maitasuna deitzen diogun horren azpian zenbat gauza ezkutatzen diren. Bereziki aztertu nahi nuen emakume askok maitasunarekin duten kontraesana. Izan ere, iruditzen zait emakume ausart asko daudela, akademia, enpresa, politika eta aktibismoaren munduan aurrerapauso handiak eman dituztenak, estereotipo, agindu eta boterearen aurka matxinatu direnak, baina oraindik azterketa bat gainditzeko dutenak, ikusi nahi ez duten alde ilun bat: maitasunarekin duten etengabeko kontraesana. Hor arakatu nahi nuen. Gure gorputzetan maitatzeko modu bakarra daukagu zizelkatuta. Horren kontrako barne-borrokan arakatu nahi nuen.

**Amodioak Artearen eta Literaturaren historian izan dituen hainbat irudikatze ere agertzen dituzu testuan zehar.**
Lehengo galderarekin du zerikusia honek. Historian zehar zenbat aldiz izan da irudikatua maitasuna? Askotan, etengabe. Beraz, bada modu bat adierazteko gai eternal baten aurrean gaudela, hainbatetan irudikatu dena, eta,



hala ere, ze gutxi dakigun oraindik maitasunaz. Egin dut, baita ere, adierazteko zuretzat idatzita ez dauden hitzek, zuretzat margotuta ez dauden artelanek zutaz hitz egin dezaketela.

**Liburu honetan eszena erotiko batzuk ere idatzi dituzu, zure liburuetan horren ohikoa ez dena. Eroso sentitu zara idazketan?**
Bai, zergatik ez? Oso modu askean idatzi dut, neure buruari muga gehiegirik jarri gabe. Nahiko modu naturalean atera zait, baina konturatzen naiz interesatzen zitzaidala sexua agertzea, badelako eremu bat oso intimoa, oso sekretua, ia ez dugu inorekin hitz egiten hor gertatzen denaz… Eta, plazera eman eta jasotzeaz gain, gauza asko gertatzen dira sexu harremanetan. Batzuetan ohe bat guda zelai bihur daiteke. Horrekin batera, interesatzen zitzaidan emakumeen desioa plazaratzea. Leku guztietan gara desio objektu, baina gure desioa ezkutuan dago gehienetan. Desiratua izatea lehentasun handiagoa dela erakutsi digute desiratzea baino. Horregatik ere agertu nahi nuen emakumeen desioa, apaingarririk gabe.

**Maitasun erromantikotik kanpoko harreman-moduak ere agertzen dituzu. Erreibindikazio bat da?**
Nire asmoa ez da eredu zehatz baten aldeko aldarrikapenik egitea, baizik eta erakustea maitasun mota asko daudela, modu askotara bizi dezakegula gure maitasuna, eta ez garela gizarte honetan aske benetan nahi dugun bezala maitatzeko. Oraindik maitatzeko eredu hegemoniko bakar bat da nagusi. Eta gizartea eredu horren bueltan dago ordenatuta. Bikote heterosexuala da oraindik guztiaren neurria, eta horren barruan emakume eta gizonek leku zehatz bat dute, aurretik ezarritakoa. Hortik ateratzen denak zigorra jasotzen du, edo behintzat zailtasunak aurkitzen ditu bidean maitasuna nahi duen modura bizitzeko. Eta hortik kanpo geratzen dira gure bizitzan oso garrantzitsuak diren beste maitasun batzuk ere, lagunengana sentitzen duguna, adibidez.

> *“Estereotipo, agindu eta boterearen aurka matxinatu diren emakume ausart askok oraindik azterketa bat gainditzeko dute: maitasunarekin duten etengabeko kontraesana”*



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: JAIZKI FONTANEDA

**Belaunaldi desberdinetan maitasuna bizitzeko moduak aipatzen dituzu. Gizartea aldatzen ari da arlo honetan? Inertziek bizirik diraute?**
Inertzia asko daude bizirik. Batzuk birsortu egiten ditugu etengabe. Agian aldatu egin dira ligatzeko moduak, gaur Tinder eta horrelako plataformak ditugu, adibidez, baina aldatu al da maitasunean emakume eta gizonek dugun lekua? Eta, horrez gain, kapitala eta merkatua nagusi diren gizarte honetan, maitasuna konpartitzen dugu ala gero eta gehiago da kontsumitzen dugun zerbait? Eta indibidualismoa nagusituz doan gizarte honetan, ez al dira gure maitasunak gero eta berekoiagoak, gero eta nartzisistagoak? Gure mundu intimoan gertatzen dena guztiz lotuta dago egoera sozial, politiko eta ekonomikoarekin.

**Gero eta gehiago zabiltza munduan barrena. Nola hartzen dituzte zure lanak? Bada alderik hemen duzun harrerarekin?**
Nire lanen itzulpen bakoitza opari bat bezala sentitzen dut. Eta zenbat eta harreman gehiago izan kanpoko irakurleekin, konturatzen naiz ez dagoela horrenbesteko diferentziarik. Nahiz eta herrialde eta gizarte ezberdinetan bizi, badira gai unibertsal batzuk guztiekin dutenak zerikusia. Zentzu horretan, nahiko antzeko komentarioak heltzen zaizkit kanpoko eta hemengo irakurleen aldetik. Eta oso hunkigarria da sentitzea zugandik hain urrun bizi den norbaiten intimitatean sartzeko aukera izan duzula. Beti da hunkigarria, baina urruntasun geografiko horrek oraindik sinesgaitzago bihurtzen du.

**XABIER MENDIGUREN**
Editorea



BARREN-BARRENEAN

# GUSTATZEN ZAIZKIZU GUSTATZEN ZAIZKIZUN LIBURUAK?



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Ez dugu beti berdin irakurtzen, ezta? Askotan asko irakurtzen dugu. Eta askotan gutxi. Edo ezer ez. Baina ez dugu hitz egiten irakurlearen blokeoaz, irakurri nahi eta ezinaz. Eta pena da, besteak beste, asko direlako irakurtzen ez dutelako errudun sentitzen diren irakurleak.

Zeuri ere gertatzen bazaizu, irakurle, edo gertatu bazaizu edo inoiz gertatzen bazaizu, saiatu zeure burua zigortzen baino, zeure burua ulertzen. Zeintzuk izan ziren irakurri zenituen azken liburuak? Gustatu zitzaizkizun? Eta, kontuz, ez dut esan nahi ze iruditu zitzaizkizun. Seguru onak zirela. Horregatik aukeratu zenituen. Onak zirelako. Beharbada izen handiko idazleenak. Prestijiozko argitaletxeenak. Saridunak. Beharbada idazleari egindako elkarrizketaren bat irakurri zenuen eta gauza inportanteei buruz hitz egiten zuela iruditu zitzaizun. Eta pentsatu zenuen liburua ona izango zela eta idazle horrek jakingo zuela idazten, baita ondo idazten ere.

Beharbada bai. Beharbada ez. Ez du zertan.

Espainian, XIX. mendean, kritika askoz hobeak izan zituen eta prestijio gehiago akademian, unibertsitatean, komunikabideetan eta gizartean **Campoamor** izeneko batek **Galdos** edo **Becquer**rek baino. Eta sentitzen dut esatea, irakurle, baina esku artean daukazun liburu hori, ona eta inportantea zelakoan hartu duzuna, izan daiteke intelektualek gutxietsitako autore baten lan miresgarri bat edo sistema literarioak goretsi duen baten erdipurdiko lan bat. Izan daiteke gauza asko. Eta zeuk erabaki behar duzu benetan zer den: Galdos, Campoamor edo beste zerbait.

Irakurtzen dugunean zer sentitzen duzun. Hori da liburu bat epaitzeko modurik onena. Ulertu duzu? Aspertu zara? Gauza ederren bat irakurri duzu? Nola iritsi zara bukaerara, gogaituta, edo fresko? Galdera horien erantzunek lagunduko dizute benetan gustuko dituzun irakurketak aukeratzera, zeure buruarekin fidatzera eta irizpide propio bat izatera. Hori gabe, goiz ala berandu, suak itzali egiten dira eta utzi egiten diogu irakurtzeari.



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Hara. Urte hasieran asko irakurri nuen. Otsailaren hasieran erditu behar nintzen, baja hartuta nengoen eta ez nekien noiz izango nuen halako beste aukera bat. Urteak neramatzan irakurtzeko horrenbeste denborarik gabe eta egunean liburu bat irakurtzen ibili nintzen. A ze gozamena. Miragarria iruditu zitzaidan **Harkaitz Cano** eta **Unai Iturriaga**ren *Ni ez naiz Mikel Laboa* (Elkar, 2022) eta zoro moduan disfrutatu nituen **Iturriaga**ren eta **Alex Sardui**ren *Haur besoetakoa* bilduma (Euskal Herriko Ikastolak). Jenialidade bat orrialdeko, gutxienez. Asko dibertitu nintzen *Euskalia*ren (Elkar, 2022) irudimen, anbizio, umore, eta pasioarekin. Tormenturaino gustatu zitzaidan **Chesterton**ek **Shakespeare**ri buruz idatzitakoak biltzen dituen *El alma del ingenio* (Ed. Renacimiento, 2022), eta txunditu egin ninduen **Meryem El Mehadati** bikainaren *Supersauriok* (Blackie Book, 2022). Lehen aldiz irakurri nuen Asteasuko **Agirre**, *Arpoi baten eran* (Alberdania) testu bildumari esker eta idazle moralista baina moral bat deskubritu nuen, moralaren ikuspuntutik zaharkituegia baina prosaz elegantea eta tarteka, gogoangarria. Mozkorraldi bat deskribatzen duenean, adibidez, edateko gogoa pizten du, kontrakoa bilatzen duen arren. Plazerezko egunak izan ziren. Urak ekarri nituenerako arimaren edertasun egarria asetuta neukan.

Irakurri nituen gehiegi gustatu ez zitzaizkidan gauza batzuk ere. Eta ez nituen irakurri beste batzuk, orrialdeen artean begiratu eta ikusi nuelako hor ez zegoela niretzako ezer. Norabide argirik gabeko lanak, gaizki planteatutako ariketak, prosa sofistikatuki arrarodunak, lehen esalditik aspergarriak. Ez ditut izenez aipatuko ezin ditudalako gomendatu, ez delako hain atsegina eta nire iritziak ez duelako batere inporta.

Baina, kontuz. Irakurtzen den literatura bat nahi badugu, *bizirik* dagoen literatura bat nahi badugu, zureak *asko* inporta du. Zurea, irakurle, hil ala bizikoa da.



## Proposamena

**JUAN LEKUE**
Escritor

# MI PADRE ERA PASTOR, Y LA MONTAÑA, SU HOGAR

Esta sencilla frase, tan natural como elocuente, inicia la obra *Dulce tierra prometida*, recientemente reeditada por la editorial Txertoa en el centenario del nacimiento de su autor, **Robert Laxalt** (Alturas, California, 1923).
*Dulce tierra prometida* muestra la crónica del viaje de vuelta del pastor **Dominique Laxalt**, junto a su hijo y autor del libro, a su lugar de origen en Liginaga-Atharratze, Zuberoa, tras 47 años en el Oeste americano. Un viaje que destapará con una sencillez reveladora, por momentos poética, dos realidades desemejantes y a la vez complementarias de la emigración y la identidad: la historia del padre que desnuda los límites del alejamiento, de la nostalgia, del esfuerzo y de la soledad, el éxito y el fracaso; y la del hijo, que verá modificada, de manera irreversible, su mirada americana ante el descubrimiento de sus raíces en la tierra de su padre, lo que marcará su vida y su literatura.



ARGAZKIA: UNIVERSITY OF NEVADA, RENO

En este viaje literario es notoria la concisión de imágenes, así como la carencia de aderezos metafóricos y simbólicos que revelan el enfoque intimista del que está impregnado todo el relato. Austero en las descripciones, severo y doloroso como el desierto de Nevada y sus montañas, adornado esporádicamente con diversos términos familiares en euskera, el estilo simple y sobrio de **Robert Laxalt** va configurando la historia que se convertiría en un punto de referencia decisivo en la comunidad vasca en América.
Tras la publicación en 1957, este extraordinario testimonio sobre la emigración vasca a Norteamérica significó el fin de la invisibilidad de la diáspora vasca y, en consecuencia, el fin de su no representación literaria, así como el inicio de una interculturalidad hasta entonces desconocida en la literatura de los Estados Unidos.



**DULCE TIERRA PROMETIDA**
Robert Laxalt
TXERTOA






ARGAZKIA: GABRIELLA FÜZI




**PARADISUAREN KANPOKO ALDEAK**
Bernardo Atxaga
PAMIELA

**Definitzen zaila da *Paradisuaren kanpoko aldeak. Idatzi komikoak eta tristeak*, Bernardo Atxagaren liburu berria. Ipuinak, hitzaldien kronikak eta gogoetak biltzen ditu, besteak beste, dena egilearen lehengo eta oraingo poemaz eta euskal literatura klasikoko testu hautatuz zipriztinduta.**

**Genero ezagun guztien konbentzioetatik desmarkatzen da liburua. Generoka sailkatutako zerrenda batean, zein laukitxotan sartuko zenuke?**
Oso zaila da liburua kanpotik eta orokorrean definitzea. Barrutik, ordea, oso erraza. Eman dezagun irakurleak “Mauzac-eko kartzelan” atalari ekin diola. Zer aurkituko du bertan? Bada, aurrena, Frantziako kartzela horretara egindako bidaiaren kontaketa ia klasikoa. Ondoren, zer preso aurkitu genituen, zergatik erabaki nuen nik haien aurrean testu batzuk ez irakurtzea (“Desolatio”, kasu, Itoiz taldeak kantatzen zuena), eta abar. Testu diafanoa da.

**Erosoago sentitzen al zara honelako testuak idazten genero jakin bateko arauei men egiten baino?**
Poza ematen dit literaturaren paisaia *ad nauseam* errepikatuetatik aldentzeak. Poza, baita ere, abangoardiaren mania pedanteak nire lan-mahaitik uxatzeak. Begiratu kontrazalean aipatzen den testua, “Azken zenbakiak”. Oso erraza da irakurtzeko, baina ez da batere arrunta. Bide batez, ez da halabeharra liburuaren irudiak **Jose Ramon Amondarain**enak izatea. Hurbila zait bere artista lana.

**Presentzia handia du heriotzak, baita paradisutik kanpo sentiarazten gaituzten beste izugarrikeria batzuk ere. Hala ere, tonu patxadatsua du beti kontaketak, eta ez gutxitan umoretsua.**
Gogoratu “Godalet dantza”. Dantzaria jira eta bira ibiltzen da ardoz betetako edalontziaren inguruan. Batzuetan, ausartziaz, xalto ere egiten du haren gainera. Halaxe ibiltzen dira nire testuak heriotzaren inguruan, gehienetan alai.

**Paradisuaren gaia maiz ageri da zure azken urteetako lanetan. Zer harreman du literaturarekin?**
Estatu Batuetan ibili nintzenean nonahi ikusten nituen bizitza on baten bila emigratutakoek hango tokiei jarritako izenak: Eden Lake, Paradise Valley, Arcadia… Politikan eta erlijioan oinarrizko metafora izan da paradisua, “utopia” hitzaren sinonimoa.

**Duela hamarkada batzuk baino fama txarragoa badute ere, azken urteetako zure testuetan maiz aipatzen dituzu pastelak, bizitzaren ospakizun gisa, konnotazio negatiborik gabe (gehiegizko gozotasuna, osasunerako kalteak…). Pastelak jatera gonbidatu nahi izan duzu irakurlea testu hauekin?**
Harrituko zaitut. Literaturaz eta politikaz ditudan ideiengatik azaltzen dira pastelak nire liburuetan. Azkar esanda, nekazari eta langile gizartea ere aintzat hartzen dut nik idazterakoan, ez bakarrik hirietako burges eta aristokrata klaseak eta haien ikuspuntu literarioa. Horregatik kokatu dut epigrafe modura **Pedro Buruaga**ren herritarraren aipu bat. Eta horregatik pastelak ere. Mendi aldeko herri txikietan hezi ginenok aldi bakanetan ikusten genituen pastelak, festetan edo ospakizunetan, eta halako aura bat zuten. Usain goxoa eta zaporea ez ezik, argia zuten. Halakoak aurkituko ahal ditu irakurleak liburuan!

**JUAN LUIS ZABALA**
Idazlea



# MARIA FERNÁNDEZ-MIRANDA

***El enigma Balenciaga*, publicado por la editorial Plaza & Janés, trata de arrojar luz sobre el misterio que envolvió a Cristóbal Balenciaga, leyenda en vida, autor de una obra excepcional.  La autora, Fernández-Miranda, articula su trabajo en torno a ocho capítulos que recrean momentos importantes de la vida del diseñador; ocho capítulos en los que ha empleado los recursos narrativos de la ficción para sumergirnos en la vida del genio de Getaria.**

**Su objetivo es dar a conocer a un hombre que apenas se dejó ver, un hombre de quien apenas hay retratos ni información. ¿Ha sido complicado armar este libro?**
Sí, ha sido complicado; de Balenciaga todo el mundo habla mucho, pero nadie sabe nada. Llevé a cabo una labor de documentación bastante intensa, intenté leerme todo lo que se había escrito sobre él y me fui muchas tardes a la Biblioteca Nacional y me di cuenta de que conocemos su faceta como diseñador, pero no se sabe tanto sobre el hombre, a diferencia de lo que sucede, por ejemplo, con Coco Chanel.

**Era tal el misterio que envolvía a Balenciaga que llegó a correr el rumor de que tras la firma no había un diseñador sino una estrategia comercial.**

*“De Balenciaga todo el mundo habla mucho, pero nadie sabe nada”*

**El propio rumor resulta ya moderno, ¿no?**
Él, que se sepa, solo dio dos entrevistas en su vida, y las dos entrevistas que concedió fue cuando ya había cerrado la *maison*. Era un hombre que no salía a saludar en sus desfiles, y atendía en persona a muy pocas clientas… con lo que se empezó a generar ese rumor y se llegó a decir que no era una persona, sino un equipo de diseñadores. Y es verdad que es algo muy moderno, y podríamos preguntarnos si todo eso fue porque no se quería que se supiese nada de él o si hubo cierta estrategia de marketing porque la pretensión de que nunca se hablará de él lo que logró es que se hablara de él todo el rato.

**¿Podemos saber cómo era Balenciaga? ¿Cuáles serían sus rasgos de carácter?**
A nivel profesional hay rasgos muy consensuados, como que era un perfeccionista, alguien que siempre buscaba la excelencia; pero si nos preguntamos cómo era el hombre, yo, a medida que iba investigando, iba apuntando en una libreta todos los adjetivos que se le adjudicaban: religioso, metódico, tímido, humilde, susceptible, temperamental, educado, riguroso, solitario...

**Balenciaga está considerado el mejor diseñador de todos los tiempos, pero también llegó el fin de su era. Las tendencias cambiaron, y él parecía no encajar. ¿Qué sucedió?**
En el año 1968, cerró la *maison* de París y todas sus casas, y yo me he encontrado con una contradicción porque hay quien afirma que cerró por motivos económicos, y hay quien dice que fue por un tema de concepto ya que empezaba a llegar el prêt-à-porter, y él, que era tan perfeccionista, no se encontraba cómodo con “el listo para llevar”; sin embargo, antes de morir hizo los uniformes para Air France. Yo, en el capítulo sobre el cierre, lo que hago es sumar todos los factores.


FOTOGRAFÍA: ANTONIO TERRÓN




**EL ENIGMA BALENCIAGA**
María Fernández-Miranda
PLAZA & JANÉS

**TXANI RODRÍGUEZ**
Periodista



# KONTATZEA ENTZUTEA DA




**BELARRIKO KILKERRA**
Uxue Alberdi
Begoña Durruty
ELKAR

Nire bertsio infantil bat zapata-kaxa bati artaziekin zuloak egiten ari zen laurogeita hamarreko hamarkadan, ni *Belarriko kilkerra* irakurtzen ari nintzen bitartean. Ohartu nintzenerako, zelaian behera zihoan 101 dalmaten bisera eta gomazko kangrejerak jantzita, auzoko beste hiru umeren atzetik. Gerizpetara iristean, katuak ehizarako lez makurtu ziren laurak, besoak luze, kokotsa belarretan eta ipurdiak goituta: azkena, putxi! Eta ziri banarekin *txirritxirrien* zuloak xaxatzeari ekin zioten, Frantziska basoan erditzen zen bitartean, Kororen txakurra autobusera igotzen zen bitartean, Balbinok hagin postizoak belarrian klask! jartzen zituen bitartean... Denbora, bere baitarantz kiribilduta, liburuan mende bete hartzen duten pasadizoak aldi berean gertarazten ari balitz bezala.

Kontalari gutxi batzuek baino ez daukate dohain sorgin hori. Eta kontatzea, entzutea da, halaxe idatzi zuen **Ursula K. Le Guin**ek; entzutea ez dela erreakzionatzea, ezpada hizketan ari denarekin konexio puntu bat bilatzea. Bozgoran ahoskatutako hitzek espazio eta denbora-tarte jakinen barruan sortzen dituzten esfera intimoetan elkar-topatzea. Geratzea. Sinkronizatzea.

Pausaleku horien bila aritu da Uxue bilduma hau osatzen hasi zenetik; azken urteotan argitaratutako pentsamendu eta literatur lanetako hainbatetan egin izan duen moduan, idazketa prozesua entzunaldi segida batetik abiatzeko, hain justu. Elkarrizketatuetako gehienei ordura arte inork egin bako galderak egiteko: esplika iezadazu zure bularrarena, *txotxinarena*, behatz txikiarena. Eta kontagarritzat geneukanaren eta ez geneukanaren artean lurrari pega-pegatuta zegoen zinta desitsatsi eta koxka bat harago eramanez itxi du zikloa. Kontatzea entzutea baita, eta entzutea errekonozitzea.

Belarriz jasotako izenak, aditzak edo onomatopeiak testu idatzietara ekartzea, ordea, hegaka hazi diren intsektu familiatxoak habitatez aldatzea bezalakoa da; paper gainera jaregin eta beren kasaka lerrokatzen uztea ez da nahikoa izaten, airean dabiltzanean lez bibratzen segi dezaten. Esaldi laburrak ipini behar zaizkie oinpean, hanka puntetan lur-hartuko badute; harridura ikurrak eta galdera markak nahinon, buruz-behera *txintxilikatzeko*. Eta, jateko, lantzean letra bat, euskalkiek edo ahozko esapideek hala eskatzen dutenean: *ama, batugu birikak, batugu birikak!*

Istorio hauetako bakoitza da berba-habia bizi bat, bildua, sekretuzkoa eta entzungarria. Erraz-erraz idatzitakoa eman lezakeena, erraz-erraz margotutakoa, literaturan, ilustrazioan, zein beste edozein arte diziplinatan, soiltasunak eta esan-indarrak elkar hartzen duten instant horretara iristea zeinen zaila den ez bageneki. Trazu beltz finak, zirrimarra okreak eta akuarela arrasto grisak paisaia zurien gainean, abarkak, sardeak eta hilkutxak mugiarazten, Begoña esku gainera datozkion koko hegalariei puzka ari den bitartean. Edo lau ume, laurogeita hamarretako ekain batean, zapata-kaxari tapa altxatu eta barrutik kantuan dauzkaten kilkerrei letxuga-orriak ematen. Fantasia.

**MIREN AMURIZA**
Idazlea



# JUAN DEL VAL

**Juan del Val (Madrid, 1970) ha escrito una historia seductora y audaz. Ha vertido sobre ella los entresijos de un entorno que conoce bien: la producción audiovisual. Quien se asome a las páginas de *Bocabesada* (Espasa Libros, 2023) encontrará un fascinante mosaico de personajes que se mueven en un devenir ficticio perfectamente trasladable al día a día real de la industria televisiva.**


FOTOGRAFÍA: CARLOS LÓPEZ ÁLVAREZ




**BOCABESADA**
Juan del Val
ESPASA

***Bocabesada* se llama la productora audiovisual que es el centro neurálgico de la historia. ¿Por qué ha elegido ese nombre?**
El nombre de *Bocabesada* me sonaba muy bien y me sugería cosas siempre buenas, el pronunciarlo me daba una especie de energía positiva. Me parecía que tenía muy buena sonoridad y, además, como título de novela, podía estar muy bien.

**Ha decidido vertebrar la historia a partir de un entorno que conoce bien.**
Soy un autor que habitualmente escribe de lo que sabe, porque sobre todo me resulta más fácil a la hora de crear personajes.

**Y ¿hasta qué punto ha condicionado el lugar que ocupa Juan del Val en el mundo, su trayectoria personal y profesional, en el proceso de documentación? ¿Y en el desarrollo de la historia?**
Al tratarse de una historia que está situada en una productora, es algo que conozco muy bien. Yo he trabajado en lugares así, conozco como es ese lenguaje, conozco cómo son las cosas que suceden y me parecía interesante que el público también lo conociera, por eso he elegido contar esa parte del mundo audiovisual que yo creo que la mayoría de las personas no conocen y los que hemos trabajado ahí sí.

> *“La gran virtud de los personajes sobre los que escribo es su enorme verdad”*

**En la novela encontraremos un mosaico de personas llenas de luces y de sombras, como en la vida real.**
La gran virtud de los personajes sobre los que escribo es su enorme verdad. Están muy pegados a la realidad. Personajes que conozco, pues muchos, buena parte de ellos o, prácticamente todos, tienen mucho de mí, o sea que imagínate si los conozco.

**Toca temas punzantes, controvertidos y de rabiosa actualidad como el Alzheimer, la transexualidad, las diferentes formas de ser padres o las relaciones de amor y sexo. ¿Escribe sobre ellos porque siente la necesidad de visibilizarlos o normalizarlos, quizá?**
No pretendo tocar temas, ni para desarrollarlos, ni para criticarlos, simplemente escribo novela contemporánea. Lógicamente, hablo de lo que les pasa a personas en la actualidad, por eso toco esos temas. No es que pretenda reivindicar ninguna posición ni nada por el estilo, son situaciones que pueden vivir personas del entorno de cualquiera, y por eso los meto en la novela. Además, creo que esto hace que sea muy fácil identificarse con los personajes.

**¿Ha querido explorar, de alguna forma, los límites de la fragilidad del ser humano?**
Hablo del ser humano en general, de lo que le pasa y de lo que siente, hablo de su fragilidad evidentemente, pero también de su fortaleza, a veces, sobre su pretendida fortaleza y a veces sobre una fragilidad también un poco impostada. Al final hablas de personajes y de todo lo que les puede pasar, fragilidad o fortaleza.

**TERESA SALA**
Periodista

La entrevista completa:
https://labur.eus/aldizkaria74juandelval



# XABI LASA

**Nobela alorreko Irun Hiria Kutxa saria bereganatu du Xabi Lasak *Ura ez baita beti gardena* thrillerrarekin. Lehenengo eleberria du Berriozarko alkate izandakoak.**

**Hainbat arlotan ibili eta gero, eleberri batekin heldu zara euskal letren plazara. Zergatik orain?**
Hain segur orain ikusi dudalako nire burua heldutasun askirekin nobela serio bat idazteko, bai ezagutza literarioaren aldetik, bai hizkuntzaren aldetik. Hala ere, ez publikatu arren, nik betidanik idatzi dut eta, batez ere, asko irakurri dut.

**Eta zergatik nobela beltza?**
Genero hori gustuko dudalako eta, hein batean, haren gakoak ezagutzen ditudala uste dudalako; dena den, *Ura ez baita beti gardena*-ren kolorea ez da beltz ortodoxoa, nik gehiago thriller gisa definituko nuke, thriller forala. Bestalde, genero beltzak bide ematen dizu errealitatearen aurpegi beltza agertzeko, eta nire istorioan alde hori nabarmen agertzen da, itxuraz oso herrialde lasaia den Nafarroa honetan egon badagoela erakusteko.

**Hautatu duzun kokalekua ere (Nafarroako Erribera) ez da ohikoena gure literaturan.**
Urak josten du argumentuaren haria eleberrian, eta gurean uraren arazoa nonbait atzematen bada, toki hori Nafarroako Erribera da. Horretaz landa, Erribera aldarrikatu nahi izan dut euskal lurralde gisa, kostaldea edo Pirinio aldea bezain Euskal Herria izanik, hainbestean ez dela horrela hartzen ikusten baitut. Diskurtso baztertzaile hori hausteko modu bat ere bada nire nobela.

**Administrazioaren zure ezagutza nabaria da testuan. Gainerakoan, zenbat dago dokumentaziotik, zenbat irudimenetik?**
Ez da erraza horri ihardestea. Nobelaren testuingurua erreala da eta Nafarroako administrazioaren egitura den bezala eraman da istoriora, bere aberastasun eta miseria ororekin. Aldiz, argumentua asmatua da, guztiz posible izan zitekeen arren. Hala ere, jokaerak, prozedurak, baita sentipenak ere, inspiratuak eta, are, oinarrituak daude nik Administrazioan bizi izan dudanean. Nahasketa interesgarria dela uste dut, eta horixe da nobelaren jolasetako bat.




**URA EZ BAITA BETI GARDENA**
Xabi Lasa
ELKAR

# JON GEREDIAGA

**Irun Hiria Kutxa poesia saria irabazi du Jon Gerediaga poeta eta antzerkigile bilbotarrak *Zeru-lurren liburua* olerkisortarekin, non izadiaren behaketatik abiatuta gogoeta egiten duen izateaz, denboraz, bizitzaz.**

**Zure azken liburuen ildoan, natura da erabateko protagonista…**
Hizkuntza “prosaikoagoan”, *natura* hitza agian *bizitza*, edo *izatea*, edo *osotasuna*ren baliokide ere izan daiteke. Zentzu horretan, normala da liburu honen eta liburu guztien erdigunean *natura* egotea, hau da: *zeru-lurrak*. Eta hor den-dena sartzen da: bizitza, heriotza, iraupena, aldaketa, maitasuna, mina eta abar. Baina, bestalde, *natura* esatea, edo *zeru-lurrak* esatea, edo *bizitza* esatea, poesian behintzat, ez dira gauza bera. Hitz poetiko bakoitzak bere gorputza du, bere irudiak, bere presentzia. Ez da beste zerbaiten ordezkari hutsa. Eta ezin dugu hitz poetikoa kutxetan sailkatu gaiaren arabera. Hitz poetiko bakoitza mundu bat da.

**Eta gizakia zer da: izadiaren barneko elementu bat? Arerioa? Behatzailea?**
Gizakiari buruzko narratiba asko daude, garai bateko narratiba handi, sakratu eta bakarra desegiten ari delako. Orduan, zilegi da esatea gizakia izadiaren atal bat baino ez dela. Bai, zergatik ez. Esatea, adibidez, zeru-lurrek hitz egiteko giza ahotsa erabiltzen dutela, izadia bera subjektu bihurtuz. Beste batzuek esango lukete, adibidez, gizakia “izatearen artzaina” dela, edo naturaren zaindaria, jagolea eta abar. Hori ere iradokitzailea izan daiteke, “biofiloa” iruditzen zait. Beste askorentzat, aldiz, naturaren arerio baino ez gara, baina halako ikuspegi misantropoak ez dakit zertan lagundu dezakeen. Edonola ere, “mito” edo narratiba gehiago sortzeko eta onartzeko prest egon beharko genuke, gauza guztien “bertsio bakarraren” ordez.

**Estilo pausatua erabili duzu, kontenplazioa eta hausnarketa tartekatuz…**
Poema bat idazteko hartzen dudan tartea *vita contemplativa*-ri dagokio. Nik behintzat aldarte berezi hori behar dut hitz poetikoa ager dadin. Beste gauza bat da eguneroko betebeharrak aurrera ateratzeko behar dugun denbora mota. Hori *vita activa*-ren parte da. Eguneroko tentsio guztiak laxatzen hasten direnean, orduantxe agertzen dira askotan aldarte eta gorputzaldi poetikoak. Eta hitz poetikoak, besteak beste, aldarte bat harrapatzeko gai izan beharko luke.




**ZERU-LURREN LIBURUA**
Jon Gerediaga
ELKAR

# BEGOÑA PRO URIARTE

***Las cien puertas* es la nueva novela de Begoña Pro Uriarte, que nos traslada una vez más al reino de Navarra, concretamente al siglo XII, durante la construcción de la ermita de Eunate. Una historia repleta de aventuras, emociones, sentimientos… y enigmas esculpidos en piedra.**




**LAS CIEN PUERTAS**
Begoña Pro Uriarte
TXERTOA


FOTOGRAFÍA: TXERTOA

**¿Qué hay detrás de *Las cien puertas*?**
Una novela histórica y de aventuras que nos lleva a un lugar muy especial de la geografía navarra, Valdizarbe y, más concretamente, a la ermita de Santa María de Eunate.

**De hecho, puede decirse que esta singular ermita, un hito en el Camino de Santiago, es la principal protagonista.**
Así es. Eunate te atrapa desde que pones los pies en ella. Aúna religión, esoterismo, mitología, astrología, astronomía, historia, geografía… Desde luego, quien la construyó tenía conocimientos de todas estas materias.

**¿Los templarios?**
En realidad, no se sabe, lo que agranda el misterio. Que fue obra de los templarios es una de las hipótesis que se han barajado y de la que yo me he servido, como me he servido de otras muchas leyendas e historias relacionadas con Eunate.

**Quien conduce la trama es Enecco, un humilde labrador de la Navarrería de Pamplona, reconvertido en juglar.**
Es un muchacho que, de repente, es arrancado de su mundo y se ve obligado a reinventarse, al tiempo que trata de entender las razones por las que ha caído en desgracia. Lo hará en torno al Camino y a Eunate. Se topará con personajes de todo tipo que van a marcar su devenir. Entre todos ellos hay uno histórico que me gusta especialmente: Pedro Tizón, del linaje de Rada, guerrero, templario y sabio.

**También en esta ocasión el marco histórico de la novela es impecable. Nos encontramos a Enecco en medio de intrigas y episodios bélicos que realmente existieron.**
García Ramírez el Restaurador había refundado el viejo reino de Pamplona, después de que hubiese estado unido durante más de medio siglo al de Aragón. Su hijo Sancho el Sabio lo rebautizó como reino de Navarra y asentó las bases del nuevo estatus. No lo tuvo fácil, porque Aragón y Castilla conspiraron, atacaron y, en cierto momento, Sancho tuvo incluso que refugiarse en el castillo de Leguin.

**En sus obras, los sentimientos siempre cobran gran protagonismo, pero diría que esta novela es particularmente emotiva. ¿A usted también se lo parece?**
Quizá sí, y una de las razones ha podido ser que siento debilidad por la ermita de Eunate, que conozco desde niña y siempre me ha resultado tremendamente inspiradora. En cierta medida, sentía una deuda con ella.

**¿Quien lea *Las cien puertas* puede aspirar a desentrañar al menos alguno de los enigmas que plantea Eunate?**
Yo creo que sí. Va a descubrir cosas maravillosas sobre el pensamiento y la visión de la vida en el siglo XII. El cielo y la tierra, que en principio parecen tan alejados, estaban en realidad muy cerca. Es increíble cómo se puede decir tanto a través de unas piedras mudas e inmóviles, que, sin embargo, no son sino el reflejo del movimiento de las estrellas y constelaciones.

**KARMELE URRUTIA**
Periodista




# ENEKO AIZPURUA

***Gaueko azken expressoa* (Alberdania, 2023) du izenburu Eneko Aizpurua (Lazkao, 1976) idazlearen laugarren eleberriak. Aurreko hirurak eleberri beltzak ziren; oso bestelakoa da azken lan hau, *Bidasoan gora* saiakera lan entzutetsuan ibiltzen zituen paisaiak fikziora ekartzen dituena.**


ARGAZKIA: ALBERDANIA

**Barros izeneko pertsonaia du eleberriak protagonista nagusi. Nola definituko zenuke?**
Han eta hemen iragaitzaz den migrante portugesa da. Baditu hezur-haragizko edozein gizakiren bertute eta kaskarkeriak. Batzuetan, zapalkuntza jasan eta botere-keriaren aurka borrokatzen da. Beste batzuetan, bidegabe jokatzen du edo lagun hurkoaren sufrimenduarekiko axolagabekeriaz. Tarteka, kontzientziako harraren ausikiak bitan banatzen dio bihotza.

**Antonio izeneko haur garaiko lagun minaren gaixotasunak sorterrira itzultzeko asmoa piztuko dio. Zerk lotzen ditu bi pertsonaiok eta zerk aldentzen?**
Haurtzaroko pozbideak eta Parisko paradisura iristeko itxarobideak lotzen ditu. Aldiz, Bidasoko mugak banantzen ditu elkarrengandik. Bidasoa erreka ezkutuan zeharkatzean, bidaidea eta gogaidea ur handian abandonatzen du Barrosek. Harrezkero, adiskide desagertua bilatzeko obsesioak jota bizi da.

**Beste ur batzuen ertzean jaio arren, Bidasoakoetan lekutu zen aspaldi, ez erabat ordea; zein harreman du protagonistak bizitoki duen ingurunearekin?**
Muga zeharkatu ezinik, ez atzera ez aurrera geratu da Bidaso bazterrean. Beste bizimodu bati ekin behar dio ezinbestean. Garbiñe ezagutuko du. Ezkondu eta seme-alabak izango dituzte. Alta, Barros ez da errotuko Bidaso bazterreko lur lohitsuan. Nonahi dagoela, lekuz kanpo dago beti.

> *“Gai, ikuspuntu eta ahots anitzeko nobela da”*

**Zure aurreko liburuak, *Bidasoan gora* saiakera (arrazoi osoz) aski laudatuak, hain justu geografia horretan gertatutako hainbat konturen berri ematen zuen; haren fikziozko bikia dela esango zenuke eleberri hau?**
Geografia berean kokatua egonagatik ere, fikziozko lanak nortasun berezia du. Saiakeran, bada atal bat 70eko hamarkadan muga ezkutuan zeharkatu zuten migrante portugesei buruzkoa. Hari horretatik tiraka, nobelak gaian sakondu ez ezik bide berriak urratzen ditu mugaldeko lur zatituan adarkatuz eta han bizi diren fikziozko pertsonaien bizitzetan murgilduz.




**GAUEKO AZKEN EXPRESSOA**
Eneko Aizpurua
ALBERDANIA

**Ustez psikologoari zuzendutako kontakizunen bidez, barne bakarrizketa trinkoen modura harilkatutakoetan, ezagutuko ditu irakurleak pertsonaien bizi ibilerak. Lobo Antunes, Sánchez-Ostiz, Chirbes etorri zaizkit irakurri bitartean; edo hitz potoloak dira?**
Bai, hitz potoloak dira. Pozik nengoke irakurleek idazle horien arrasto ttipiren bat sumatuko balute liburuan. Eredu ditut, besteak beste, **Lobo Antunes**ek *Gauzen ordena naturala* nobelan darabilen idazmoldea eta **Sánchez-Ostiz**en *Las pirañas* nobelako pertsonaiaren barne jarioa, bai eta **Chirbes**ek *Los viejos amigos* nobelan maisuki kontrajartzen dituen ahots desberdinak ere.

**Migratzeari, deserriari, bizi ezintasunari, laguntasunari, familiari, baita, azpigai modura, baina Euskal Herriari eta euskal gatazkari buruzko hausnarketak biltzen ditu liburuak.**
Gai, ikuspuntu eta ahots anitzeko nobela da. Pertsonaia bakoitzak bere bizipenak kontatzen ditu, eta, elkarren aurkakoak diren oroitzapen txatalak josiz, denen artean harilkatzen dute euskal mugaldean bizi den familia baten gainbeherari buruzko kontakizun zatikatua.

**ARITZ GALARRAGA**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/aldizkaria74eneko**



*“Biharamun emozional eta krisi bat narratzeko ariketa egin nahi nuen”*

# GOIATZ LABANDIBAR



ARGAZKIA: IÑAKI ZAPIRAIN RETEGI

**Goiatz Labandibarrek (Oiartzun, 1985) *Bekatua* idazketa prozesu luzea izan dela azaldu digu. Estreinakoz narrazioak alde batera utzi eta idazketa luzeagoan kateatu da.**

**Zure lanekin hainbat ariketa literario egin dituzu urteetan zehar. *Bekatua* liburuak ahots bakarra du; organikoa, arrakatzailea.**
Hasieratik argi nuen ideia zurrunbilo bat islatu nahi nuela istorio honetan. Burua loezinean daukagunean abaila izugarrian martxan jartzen deneko instante hori. Biharamun emozional baten narrazioa da, eta ahots bakarra interesatzen zitzaidan: protagonistarena. Gainerako guztien ahotsak bigarren mailakoak izan dira niretzat. Bakarrizketa bi narratzaile motarekin idaztea probatu dut prozesuan: lehen pertsonan eta hirugarrenean. Azkenean, hirugarren pertsonan kontatu dut. Askoz hobeto funtzionatzen duela iruditu zitzaidalako.

**Zeintzuk izan dira istorioa ehuntzeko eman dizkizun erraztasunak eta zailtasunak?**
Itxuraz euren artean lotura gehiegi ez duten ideiak kateatzeko askatasuna eman dit istorioak. Gai batetik bestera jauzi egitekoa inori esplikaziorik eman beharrik edo justifikatu beharrik gabe. Horrela funtzionatzen baitu gure garunak. Ez dugu jakiten nola lotu dituen itxuraz zerikusirik ez duten bi gai. Hori bera izan da agian zailena. Alegia, itxuraz koherentziarik ez duten ideia multzo bati osotasuna ematea, denek istorio bakarra osa dezaten.

**Nolakoa da Garazi?**
Esango nuke neska arrunt bat dela Garazi. Hogeitahamarrak pasatu dituen gaur egungo edozein emakume izan daitekeela. Noski, bere berezitasunak ere baditu. Askotxo esatea da akaso belaunaldi baten erretratua dela Garazi, baina asko du hortik ere. Nik kariño handia diot Garaziri. Uste dut neska atsegina dela. Oso humanoa, oso umila era berean. Zalantzaz beteta dagoela onartzen duena, bere kontraesanak aitortzen dituena. Ez da inondik inora perfektua, eta ez du hala izatea pretenditzen.




**BEKATUA**
Goiatz Labandibar
EREIN

**“Garazik badaki aukeratu behar duela. Horrelakoa da Euskal Herria”. Amatasuna, aurreko harremanak, etorkizuna… Zergatik edo nola sortzen zaizkio Garaziri hainbeste zalantza, hainbeste galdera?**
Biharamun emozional eta krisi bat narratzeko ariketa egin nahi nuen. Horretarako aitzakia bat behar nuen. Eta aitzakia, kasu honetan, gizarteak moralki oso ongi ikusiko ez lukeen zerbait izan da: emakume batek bikotekideari adarrak jartzea, askoz gazteagoa den mutil batekin –nahita da adin tartean emakumea helduagoa; adarrak jartzea gaizki ikusita egonik, emakume helduei are gutxiago onartzen zaielako oraindik ere–. Krisi bat kontatzeko aitzakia bat behar nuelako sartu nuen Garazi Mattinen ohean. Horrek jarriko zuelako Garaziren egunerokotasuna zalantzan. Eragingo zizkiolako beldurrak. Zer esango ote dute? Eta era berean, kolokan jarriko ziona dena. Heriotza batek dena zalantzan jartzea baino askoz samurragoa iruditzen zait. Ez nuen nahi atzera bueltarik ez duen egoera baten aurrean jarri protagonista. Zerbait askoz arruntagoa, ez hain traszendentala bilatzen nuen. Era berean, aukera asko ematen dituena gizakiaren –kasu honetan Garaziren– zalantzez, beldurrez, desioez eta abarrez hitz egiteko eta Garazi bere inguruari eta ondokoei begira jartzeko.

**LEIRE PALACIOS**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/aldizkari74goiatz**





ARGAZKIA: ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN

# ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN




**BARBARO IRAUN**
Louisa Yousfi
TXALAPARTA

**Itziar Diez de Ultzurrunek euskaratu du Louisa Yousfi jatorri aljeriarreko kazetari, idazle eta ekintzaile politikoaren *Barbaro iraun* (Txalaparta). Mugimendu kolektibo antirrazista eta dekolonialaren baitan kokatzen da liburuxka hau eta Frantziako Estatuan oihartzun handia izan du.**

**Ze asmoz idatzi du Louisa Yousfik liburu hau?**
Frantzian dagoen arrazakeria instituzionalaz mintzatu nahi du: eztabaida politikora ekarri nahi du, adostasun zuririk gabe, ahoan bilorik gabe, eta ikuspegi deskolonial eta antirrazista batetik mintzatuz. Liburuan, asimilazio eta integrazio bortxatuaren auziari heltzen dio, ikuspegiak lekuz aldatzeko asmoz eta heldulekutzat erabiliz XX. mendeko zenbait idazle eta gogoetagile ospetsu (**Kateb Yacine**, **Frantz Fanon** eta **Toni Morrison**, besteak beste) eta, orobat, Afrikan jaiotako guraso edo arbasoak dituzten gaur egungo raplari batzuen letrak eta ibilbideak.

**Domestikazio mendebaldar zibilizatzailearen aurkako mugimendua erreibindikatzen du…**
Bai, zibilizazio mendebaldar kapitalistak bere legea ezarri nahi izan du planeta osoan, bere eredua indarrez zabalduz, bere kontakizuna inposatuz eta bere balioak beste herri eta zibilizazioen ikuspegien gainetik paratuz arlo guztietan. Mendebaldeak kontakizun historikoa idazteko eta ongia eta gaizkia bereizteko ahalmena esleitu dio bere buruari, eta botere bidegabe horren kontrako mugimenduarekin bat egiten du **Yousfik**. Tresneria deskolonial eta antirrazista baliatzen ditu horretarako, eztabaidaren arauak aldatzen laguntzeko, hedabide nagusietan ez bezalako ertzetatik begiratuz errealitateari, eta, gainera, zuri europar onberen oniritziaren bila ibili gabe.

**Liburu honek oihartzun handia izan du Frantzian. Esanguratsua iruditzen zaizu euskaraz gaztelaniaz baino lehen agertzea?**
Bai, oihartzun handia izan du eta hormetan ere margotu izan dute izenburua, ekintzarako lelotzat harturik-edo. Euskaraz lehenago atera izanak adierazten du, nire ustez, Txalapartak ez duela soilik begiratzen Espainiako liburugintzan zer dabilen eta hori garrantzi handikoa iruditzen zait, beste lurraldeetarako leiho zuzenak irekitzen dizkigulako. Bestalde, aproposa iruditzen zait **Yousfi**ren liburua euskaraz idatzitako beste lan batzuekin "elkarrizketan" irakurri nahi luketen irakurleentzat: esaterako, **Joxe Azurmendi**ren *Espainolak eta euskaldunak* edota *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*; **Ibai Atutxa**ren *Barbaroak eta zibilizatuak*; edo **Lorea Agirre** eta **Idurre Eskisabel** *Trikua esnatu da*. Ildo horretan, aipatzekoa da **Ainhoa Nadia Douhaibik** oso gibel-solas mamitsua apailatu duela euskarazko argitalpenerako.

> *"Ikuspegi deskolonial eta antirrazista batetik, Louisa Yousfik asimilazio eta integrazio bortxatuaren auziari heltzen dio. Frantzian oihartzun handia izan du eta hormetan ere margotu izan dute liburuaren izenburua, ekintzarako lelotzat harturik-edo"*

**Zerk harritu zaitu gehien liburu honetatik?**
Harritu nau egilearen prosa biziak, eta zer trebea den bateko eta besteko ideiak eta erreferenteak lotzen eta haien arteko loturak bilbatzen. Bestetik, harrigarria eta gogo-pizgarria iruditu zait zer ikuspegitatik begiratzen dien jatorri afrikarreko egungo raplarien jarrerei eta kanten letrei: liburuan letren aipamen ugari daude, letrei erreparatzen baitie, haietan arakatzen, mitologia askatzaile berrien oinarri izan daitezkeelakoan.

**KAROLINA ALMAGIA**
Kazetaria

LAS MEJORES AGENDAS 2024
DE TUS AUTORES FAVORITOS



TANTANFAN

# EL LUGAR INVISIBLE




**EL LUGAR INVISIBLE**
Lola Llatas
OBSCURA

Este otoño, **Lola Llatas** nos sorprende con *El lugar invisible*, una mágica y tenebrosa intriga que no dejará indiferentes a los más exigentes fans del misterio y el suspense.

Acción, suspense y magia ritual convergen en el nuevo libro de **Lola Llatas** (Valencia, 1976), una inquietante historia sobre la vida y la muerte y lo que estamos dispuestos a hacer para no dejar ir a aquellos a quienes amamos.

Cuando Gracia decide abandonar la ciudad y mudarse a Tiebana con su sobrina Estela, está ilusionada ante la nueva etapa que se abre ante ellas. Pazo Inanis, rodeado de una naturaleza bella y salvaje, es el hogar que compartirán con Ángela, el ama de llaves, y sus dos hijos mientras Gracia cuida de Vera, una anciana que lleva largo tiempo enferma en cama.

El Pazo es un pequeño paraíso, y el ama trata a las recién llegadas como familia. Sin embargo, con el paso de los días tía y sobrina empiezan a darse cuenta de que para los vecinos del pueblo la vida y la muerte no trascurren con naturalidad, y su estancia en Tiebana pronto va a adquirir dimensiones tan sobrenaturales como terroríficas. Pazo Inanis se convertirá en un lugar cada vez más hostil para Gracia y Estela, que comprenderán que Tiebana las ha llamado para exigirles un gran sacrificio.

Tras publicar varios libros infantiles, la magnífica acogida de *Bosque* (Obscura, 2021) estableció a Lola Llatas como una de las escritoras a seguir de cerca. Su prosa es pulcra y envolvente, y sus novelas cautivan por su ambientación mágica y tenebrosa y sus personajes de moralidad gris. Misterio, acción, secretos familiares… Las páginas de *El lugar invisible* destilan lo mejor de **Kate Morton**, **Isabel Cañas** y **Dolores Redondo** y resultan en una historia tremendamente adictiva en la que converge la esencia de las novelas góticas y los relatos sobre mitos y magia.

# FITO. Y POR SUPUESTO LA LUNA




**FITO. Y POR SUPUESTO LA LUNA**
Kike Babas · Kike Turrón
BAO KOMIKIAK

Con motivo del vigésimo quinto aniversario de la carrera en solitario de **Fito Cabrales**, BAO Komikiak edita la novela gráfica oficial que relata la vida y la obra del popular rockero bilbaíno.

*Fito. Y por supuesto la luna* es una narración que adapta al idioma del cómic la biografía y carrera artística de **Fito Cabrales**: desde sus llanos comienzos como camarero en todo tipo de bares, hasta el desarrollo madurativo como cantante y guitarrista empecinado en hacerse un hueco con el grupo Platero y Tú, que enlaza con la eclosión que le ha posicionado, al frente de Fito & Fitipaldis, como el artista de rock en castellano más relevante.

Un trabajo coral concienzudamente guionizado por los acreditados biógrafos musicales **Kike Babas** y **Kike Turrón** (autores de libros sobre **Rosendo**, **Manu Chao**, Los Rodríguez, etc.), en el que participan una decena de señeros ilustradores (como **Raquel Alzate**, premio autor revelación en el Salón del Comic de Barcelona; **Alberto Peral**, premio de Ilustración Universidad Popular; o **Pedro J. Colombo**, ilustrador de la internacionalmente reconocida *El fotógrafo de Mauthausen*) y que recrea, en un fabuloso ejercicio de pletórica imaginación, conjugada con rigor periodístico, la historia de este artista tan reconocido por su arte compositivo, como reconocible por su sempiterno aspecto.

La novela gráfica *Fito. Y por supuesto la luna* ofrece a lo largo de sus viñetas las claves vitales que han moldeado su obra, los momentos emblemáticos del chico de barrio que se fue convirtiendo en una estrella musical, icono indiscutible del rock y autor de canciones que son indisolubles de la cultura popular. El prólogo ha corrido a cargo de **El Gran Wyoming**.



# JUAN LUIS ZABALA



**Beharbada, irakurle bat baino gehiago harrituko dira Juan Luis Zabalak (Azkoitia, 1963) zientzia fikziora jo duelako bere azken liburuan. Edo beharbada ez. Ipuin liburua *Dimisioa* (Susa) deitzen da, eta bere nortasuna galdu gabe arakatu du zalantzaz beteriko etorkizunean.**

**Sarritan pentsatzen al duzu etorkizunean?**
Bai, baina ez luzaz. Beldurtzen hasten naiz eta neure buruari esaten diot uzteko, ez duela ezertarako balio eta kalte baino ez didala egingo horretaz pentsatzen jarraitzeak.

**Hamabost ipuin eta izenburu bat: *Dimisioa*. Zer topatuko du irakurleak?**
Autonomoak badira ere, ipuin guztiak etorkizun ez oso urrun batean kokatuta daude: mende honetan, baina hamarkada batzuk aurrerago. Gizakiak, ikusirik bestela bere planeta eta bere burua suntsitzeko bidean dagoela, salbaziorako azken aukera gisa, konputazio-makina erraldoi baten esku utzi du planetaren gidaritza. Nolanahi ere, pertsonaien kezkak eta arazoak gaur egun nagusitzen diren bertsuak dira.

**Algoritmoak, androideak, konputadoreak… Iradokitzen duzun munduaren erradiografia egiteko nahitaezko hitzak dira.**

> *“Liburua, azken batean, utopia distopikoa da, edo distopia utopikoa, nahi den bezala”*

Kronologikoki, ipuinik zaharrena *N-634* da. Hura idatzi nuenerako hasia nintzen gizakiak agintea konputazioaren esku utzia duen etorkizun bat irudikatzen. Hortik aurrera, gainerako ipuinak ere mundu horretara joaten zitzaizkidan, nahita zein nahi gabe. Are gehiago itzultzaile neuronala ezagutu nuenean. Itzultzailea naiz lanbidez, eta pentsatu nuen konputazioak gure lana egin badezake politikariena eta kudeatzaileena ere egin dezakeela. Abantaila handiekin, gainera, ikusirik hezurharagizko politikarien eta kudeatzaileen ezinak, laprastadak eta jokaera makurrak. Beste kontu bat da, jakina, nork eta nola sortzen eta programatzen duen konputazio erraldoi hori.

**Liburuan behin eta berriz errepikatzen dira AGK siglak. Zer ezkutatzen dute?**
AGK Agintaritza Global Konputazionala da, mundua suntsitzetik salbatu eta mundu bidezkoago eta zoriontsuago baterantz jotzeko xedez modu nahiko demokratikoan programatutako ordenagailu erraldoia, diktadorea baina ez gupidagabea. Liburua, azken batean, utopia distopikoa da, edo distopia utopikoa, nahi den bezala.




**DIMISIOA**
Juan Luiz Zabala
SUSA

**Ohi bezala, ironia eta umorea ez dira falta liburuan.**
Irakurleek hori pentsatzea nahiko nuke behintzat. Tristea da liburua, baina umorez idatzitakoa.

**Eroso sentitu zara zientzia fikziozko ipuinak idazten?**
Neure betiko idazmoldeetatik urruntzeko asmoz erabaki nuen zientzia fikzioa idaztea. Baina ez dakit asko urrundu naizen, ezta zer neurritan den zientzia fikzioa idatzi dudana. Ez dago espazio-ontzi, estralurtar, denboraren makina eta halako askorik liburuan.

**Omenaldi goxoa egiten diozu Gorka Arrese Susako editore ohiari.**
Ipuin hori idatzi nuenean, *Editorea*, **Gorka Arrese**k lana utzi behar zuen, eta artean ez zuen haren lekua hartu **Leire Lopez Ziluaga**k, liburu honen editoreak. Biek merezi dute esker ona eta omenaldia. Eta, oro har, editore askok, gehienek, ez baita esker oneko lanbidea.

**ANA ABARISKETA**
Kazetaria



elkar fundazioa

# Euskaraz gehiago!



ARGAZKIA: EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

"Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat" mezuarekin bat eginda milaka lagun atera da Bilboko kaleetara, euskaraz bizitzeko eskubidearen alde eginez. Oldarraldiaren aurrean, euskararen normalizazioan eta biziberritzean eragiteko unea dela esateko atera da jendea kalera, hizkuntza politikan jauzia egiteko garaia dela esatera. Sinestarazi nahi diguten kontrara, euskara ez da segregazio eta bazterketarako tresna; guztiz kontrakoa. Euskarari dagokion lekua eman eta behar den hizkuntza politika egiten bada, euskara kohesiorako, berdintasunerako eta justizia sozialerako ezinbestekoa da, Euskalgintzako Kontseiluko idazkari nagusiak, Idurre Eskisabelek ondo adierazi izan duen moduan.

Euskal Herriko eragile eta norbanakook euskaraz gehiago egiteko baldintzak sortzen, eta euskaraz gehiago egiten jarri behar ditugu indarrak. Beharrezkoa da hizkuntza politika sendo baterako akordioak egin eta haiek sustatzea. Kontseiluak Batuz Aldatu dinamikari esker zehaztu duen moduan, euskararen erabilera erosorako baldintzak sortzea da helburu nagusia. Horretarako, hizkuntza eskubideak eremu guztietan bermatu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik izan. Hala izan dadin, hizkuntza politika egokia behar da, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa eta euskara eroso erabiltzeko espazioak sortzea, garatzea eta elkarlotzea eragingo duen hizkuntza politika. Euskararekin bat egitea da norabide horretan jartzea.

Eta eragileek hizkuntza politika indartsu baterako oinarriak jartzen dituzten bitartean, ezin norbanakoak geldirik egon. Norbanako bakoitzak ere badu egitekoa, egoerak askotan lagunduko ez badu ere, norberaren esku ere bai baitago euskaraz gehiago egitea.

Euskaldunok euskaraz egiten duten neurrian, euskaraz ariko den herria lortzera begirako hizkuntza politika eragiten ariko dira, eta oldarraldiari galga jartzen. Norbanakoak hori du eskura, euskara gehiago egitea: hizkuntza erabiliz dakienak eta ikasiz, berriz, oraindik ezagutza murritz duenak.

Euskaraz egin etxean, lanean, lagunartean, euskaraz bizi eta euskal kulturari lotu, horiek dira norbanakoaren esku daudenak, norbere euskalduntzea indartzearekin batera euskararen aldeko dinamikan eragiteko. Euskaldunen euskararekiko konpromisoa alde guztietan igarri behar da, igarri da kalera ateratzerakoan, eta igarri behar da euskaraz hitz egin edota euskal kulturaren alde egiterakoan ere, euskaratik eta euskal kulturatik sortutako ekitaldi, antzerki, pelikula, liburu, musikaren hautua eginez. Euskal kultura aukeratzen denean, euskal sormena sustatzen da eta euskal kultur egitura indartzen da, etorkizunerako oinarriak sendotuz.

Euskara gehiago behar du euskara falta duenak, horrela bakarrik ikasiko baitu eta lortuko baitu hizkuntza gaitasun egokia euskaraz egiteko. Eta euskaraz gehiago egin behar du euskara egiteko aukera duenak. Horrek bakarrik ez du egoera irauliko, esan da aurretik hizkuntza politika egokirik gabe zaila dela behar diren urratsak egitea, eta hori aldarrikatzea eta eragitea denon lana da, baina norberak euskaraz gehiago egitea ere garrantzi handikoa da, eta ahal den guztietan egin beharrekoa.

# RUTAS EN FAMILIA POR GIPUZKOA



FOTOGRAFÍAS: IÑAKI ALCALDE

Editado en euskara, *Umeekin egiteko ibilbideak. Gipuzkoa*, y castellano, *Rutas en familia por Gipuzkoa*, llega un libro con veintiséis recorridos para realizar con niños y niñas por todo el territorio histórico guipuzcoano. **Iñaki Alcalde** ha elegido una variada gama de propuestas especialmente pensadas para disfrutar con los más pequeños.

Todas las comarcas de Gipuzkoa, bosques, cascadas, montañas, valles, barrancos, desfiladeros, calas, playas, ríos, acantilados y praderas se suceden a lo largo de la treintena de rutas reunidas en este volumen. El territorio histórico presenta un diversificado abanico de posibilidades susceptibles de realizarse con niños, niñas y adolescentes.

Basta echar una ojeada a la lista de excursiones propuestas para apreciar la variedad: rutas costeras por acantilados y calas (Mutriku, Jaizkibel…), marismas (Jaitzubia), cascadas (Erroiarri, Aiztondo…), barrancos (Arritzaga), cumbres emblemáticas (Udalatx), viejos castillos (Ausa), olvidados parajes pastoriles (Degurixa), rutas clásicas por la sierra de Aizkorri, Aralar o Hernio… Una manera fabulosa de pasar un gran día y, al mismo tiempo, conocer Gipuzkoa y su patrimonio natural y cultural.

**Iñaki Alcalde** es un experto montañero con una larga trayectoria también como autor de libros y artículos de montaña. Entre otras obras, ha escrito, en colaboración con **Txusma Pérez Azaceta**, la popular *Guía de montes de Gipuzkoa*, que ya va por la sexta edición.




**UMEEKIN EGITEKO IBILBIDEAK. GIPUZKOA**
**RUTAS EN FAMILIA POR GIPUZKOA**
Iñaki Alcalde
SUA EDIZIOAK

## Diseño de las rutas

Alcalde ha diseñado los recorridos y seleccionado los destinos con el objetivo de ofrecer más alternativas y favorecer el desarrollo de planes familiares y el disfrute de la naturaleza. Es por ello que todas las rutas cuentan con dos itinerarios, corto y largo.

El itinerario corto (de entre 2 y 7 kilómetros con escaso desnivel), destinado a los más pequeños, propone un recorrido más reducido hasta llegar a un primer destino,





atractivo por su interés paisajístico, natural o patrimonial. En algunos casos este primer hito del camino ofrece la posibilidad de disfrutar de un baño en una cala, contemplar un salto de agua, visitar un monumento megalítico o ascender hasta una modesta cima dotada de grandes vistas.

El itinerario largo, por contra, traza trayectos de entre 7 y 14 kilómetros, con mayores desniveles y que, por tanto, exigen mayor rendimiento físico. Se trata de una extensión del itinerario corto hacia un segundo punto de interés para retornar finalmente al punto de partida y completar así una ruta circular. De esta manera, disfrutaremos más y conoceremos mejor el entorno natural que visitamos.

### Protagonismo para el agua

Otra de las peculiaridades de este libro reside en la importancia que el autor ha concedido al agua, consciente de "la atracción que ejerce entre los más pequeños". Es por ello que veintiséis de las treinta propuestas se acercan a calas, acantilados, marismas, cascadas, ríos, pozas, embalses e, incluso, una laguna subterránea. Dado que la posibilidad de disfrutar de un chapuzón siempre resulta gratificante, nueve de ellas dan la opción de hacerlo en una zona de baño autorizada y segura.

Finalmente, el libro incorpora códigos QR para cargar un vídeo resumen y una recreación del itinerario completo sobre un mapa tridimensional. Todas las imágenes de estos resúmenes audiovisuales han sido registradas con motivo de la elaboración de la guía y en su grabación han participado niños y niñas de edades comprendidas entre los cuatro y los catorce años.

**HEKTOR ORTEGA**
Editor

## NOBEDADEAK




**FRANCIA**
**(GUÍAS VISUALES)**
AAVV
DORLING KINDERSLEY

La guía más actualizada de Francia cuenta con exclusivas ilustraciones, planos en 3D, itinerarios, explicaciones detalladas de los principales monumentos y recomendaciones de restaurantes, hoteles, mercados y locales nocturnos.




**REINHOLD MESSNERREN DEIA**
**ZAIN DEZAGUN MENDIA**
Reinhold Messner
SUA EDIZIOAK

Urteetako eskarmentua, bizipenak eta jakintza baliatuz, Messnerrek gogoeta partekatu du mendia eta natura maite duten guztiekin. Arazoaren larriaz jabetzea da lehenengo urratsa. Irtenbideak proposatzea, bigarrena. Horretara dator liburu hau.




**LA GRAN RUTA DE LOS FAROS**
Javi Pascual Otalora
SUA EDIZIOAK

Enlazar los faros que jalonan la costa vasca entre Getxo y Biarritz constituye una de las aventuras más apasionantes que tenemos a las puertas de casa. Dieciséis etapas para recorrer, conocer, disfrutar y amar el abrazo entre la tierra y el mar.




**ISLAS DEL MUNDO**
**(LONELY PLANET)**
AAVV
GEOPLANETA

Más de 600 fotografías, ilustraciones y mapas dan vida a las 150 islas más fascinantes. Un viaje para descubrir el patrimonio cultural, las maravillas naturales y las historias secretas de islas muy diversas, algunas muy populares, y otras desconocidas.




**PICOS DE EUROPA**
**LAS MONTAÑAS DE LA LUZ**
Alberto Lastra
DELALLAMA

Alberto Lastra Cuesta se considera al mismo tiempo un amante de las montañas y de la fotografía. Su amor por los Picos de Europa lo ha llevado a recorrerlos y fotografiarlos, en la búsqueda de lugares y momentos especiales.




**SOLO ES ANDAR.** LA TRANSPIRENAICA
**DESDE EL CANTÁBRICO AL MEDITERRÁNEO**
Sergi Latorre
DESNIVEL

La Transpirenaica es una ruta de montaña que recorre los Pirineos en su totalidad por su vertiente sur. Une el cabo Higer, en Gipuzkoa, con el Cap de Creus, en Girona, mediante el sendero de gran recorrido GR11.





ALFAGUARA

LA NUEVA NOVELA DEL PREMIO NOBEL
MARIO VARGAS LLOSA

La historia de un hombre que soñó un país unido por la música y enloqueció queriendo escribir un libro perfecto que lo contara.




Penguin Random House Grupo Editorial
www.penguinlibros.com
@PenguinLibros
Disponible audiolibro y ebook

# SAHARA, HERRI BAT ERRESISTENTZIAN

## Saharari begira, hitzen bidez eta kanten bidez

**Saharar herriari eskainitako liburu eta disko bana argitaratu dira udazkenean. Elkarrek bi proiektu hauek babestu ditu beste eragilerekin batera.**

**Embarka Brahim Bumajruta**ren begirada xamur bezain zorrotzak arreta deitzen du. Fronte Polisarioko sortzaileetako bat izan zenak haima bat dauka atzean, sahararren identitate ikur nagusia, eta erbestetik, klandestinitatean sortu zen askapen mugimendu nazionalaren lehen urteak aletzen ditu. *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuaren azaleko argazkian agertzen den emakumearen bizitzaren bidez herri oso batena kontatu daiteke.




SAHARA
HERRI BAT ERRESISTENTZIAN
Kristina Berasain Tristan
BERRIA · ELKAR · JAKIN

**Kristina Berasain Tristan** kazetariaren lehen liburuak, testigantzaz testigantza, isilarazitako eta ahaztutako gatazkara gerturatzen gaitu. Mendebaldeko Saharaz euskaraz idazten den lehen liburua da kazetaritza kronika hau. "Mendebaldeko Saharako historia sahararren historien bidez harilkatu eta argazki bat egiten saiatu naiz, iraganetik gaur egun arteko panoramika egiten", dio kazetariak.

Berria, Elkar eta Jakinek elkarlanean argitaratzen duten Aleka bildumaren hamahirugarren liburua da honakoa. **Berasain** Berriako mundua sailean aritu da urte luzez eta ahaztutako gatazketan espezializatutako kazetaria da. Saharako auziari arreta berezia jarri dio, eta sahararrak banatuta dauden hiru eremuetara bidaiatu duen kazetari bakanetakoa da. Liburua ia hogei urtez bertatik bertara jasotako kontakizunen bilduma bat, gatazkaren hertz guztiei erreparatzen diona: historiari, geopolitikari, gerrari, giza eskubideen urraketei…

Ez dugu ahaztu behar hamasei urteko gerraren ostean, eta ia hiru hamarkadako su-etenaren ostean, sahararrek berriz ere armak hartu dituztela, eta okupazioa hasi zela 50 urte betetzear daudenean nazioarteko zuzenbideak aitortzen dien independentziarako eskubidea aldarrikatzen jarraitzen dutela. Ezeren gainetik erresistentzian ari den herria da sahararra.

### SAHARARI KANTARI

**Kristina Berasain**en ekarpena, dena den, ez da liburura mugatu. Beste opari bat dakarkigu: *Saharari Kantari*. Aspaldiko "ideia, ametsa, promesa" bati forma eman dio kazetariak konplize izan dituen hainbat eragilerekin batera: Elkar, Euskal Fondoa, Berria eta Bakun.

Hamabi kantez osatutako diskoa da *Saharari Kantari*. **Eñaut Elorrieta, Mikel Urdangarin, Anari, Izaro, Olatz Salvador, Itziar Ituño, Olaia Inziarte** eta **Pello Reparaz**en ahotsak entzun ahal izango ditugu bertan, baina baita gaur egungo bi abeslari saharar ezagunenak: **Aziza Brahim** eta **Ali Seidah.**

**Mikel Laboa**ren *Martxa baten lehen notak* abesti zirraragarriak ematen dio hasiera diskoari. Kursalean abenduaren 22an egingo den kontzertua ere kanta horrekin abiatuko da. **Oreka TX** eta **Aziza Brahim**ek kanta ikoniko horren bertsio eder bat egin dute, eta behin bakarrik egingo den emanaldi berezi horretan zuzenean entzun ahal izango da. Saharako ondare kulturala babestera bideratuko da disko eta kontzertu solidarioaren bidez bildutako dirua.

*Saharari Kantari* ekimenaren asmoa herri sahararrari keinu bat egitea da, eta musikaren bidez, herri honen askatasunerako eskubidea aldarrikatzea.





# JOLASAK EUSKARAZ, GERO ETA GEHIAGO

***Jolasen munduan ere, gero eta zabalagoa da euskaraz datozen produktuen eskaintza. Egia da oraindik gutxi dira euskaraz sortutakoak, baina itzulpenak lagun, gaur aukera zabala daukagu adin tarte guztietarako. Hona hemen horietako batzuk.***




Dendetan gero eta ohikoagoa da jolasak euskaraz aurkitzea. Batzuetan, gutxitan, euskaraz sortutakoak dira. Ez dira ugariak, sortzeko eta produzitzeko prozesua garestia delako. Baina badira. Eta beste batzuetan, itzulpenen bidez euskarara heldu dira, beste hizkuntza askotara (gaztelania edo frantsesa, kasu) heldu diren bezala.

Euskarazko jolasen artean, gehienek ezaugarri bi uztartzen dituzte: dibertigarriak izatea eta helburu didaktikoak izatea. Azken horien artean ohikoenak dira, besteak beste, memoria lantzea, estrategia, trebezia, ikusmen espaziala, kooperatiboak izatea…

Formatuetan ere azken aldion aldaketa txiki bat igarri da. Lehen tamaina handiko jolasak gehiago saltzen baziren ere, azkenaldion formatu ertainekoak eta eramangarriak dira gehien eskatutakoak.

Elkar argitaletxe taldeak hiru jolas ditu euskarazkoak. Alde batetik, *Joko Bat*, umeen irudimena bizkortzen laguntzen duen kolore eta logika jolasa. Bestetik, *Ezagutu Euskal Herriaren historia Lur eta Ametsekin*, proiektu multimedia erraldoi baten emaitza. Hamar urtetik gorako gaztetxoak gure herriaren historiarekin zaletzeko bide erakargarria. Eta, azkenik, Sua Edizioak-en eskutik, iaz plazaratutako *Bizkaia Mendiz Mendi*, mendizaletasunaren grina etxean bertan pizteko jolasa.

Euskarazko jolasak sortu dituzte, halaber, beste argitaletxe eta elkarte batzuek. Adibidez, Ikastolen elkarteak jolas eta puzzle sorta bat kaleratu du. Alde batetik, *Argitxo*rekin lotutako puzzle eta jolasak; bestetik, bestelako jolasak: *Asmatu baietz*, *Igarri Migarri*, *Letrak hitz*, *Bihurrikeriak*…

Argiak ere plazaratu izan du jolasik. Azkena, berriberria, *Otu. Sortu zuen istorioak* karta jolasa, **Maitane Gartziandia**ren ilustrazioekin.




## EUSKARARA EKARRITAKOAK

Euskaratik sortutakoez gain, euskarara ekarritakoak ere badira euskarazko jolasen artean, munduko beste edozein hizkuntzatan bezala. Sassi etxeak, esate baterako, euskarazko liburuxka eta puzzleak kaleratzen ditu, maleta batean bilduta eta gai zehatz bati lotuta. Horietakoak dira, adibidez, *Giza Gorputza*, *Dinosauroak*, *Eguzki sistema*, *Animalien mundua* eta beste asko.

Elkar taldeak ere beste hizkuntza batzuetan agertutako jolas arrakastatsuak itzuli ditu. Horra hor, adibidez, Djecorekin ateratako *Piratatak eta diamoniak* eta *Piou Piou* karta jolasak, *Potomac* karta jolasa, *Wolfy* jolas kooperatiboa… Edo Haba etxearekin batera kaleratutako *Little Fox albaitaria*, *Kaosa haurren logelan*, *Rhino Hero*…

Devir etxearen *Catan* klasikoa ere euskaraz eskuragarri dago. Elkarrek eta Devirrek elkarlanean jolas ezagunak plazaratu dituzte euskarara itzulita, hala nola, *Sushi go!*, *Fantasma Blitz*, *Carcassonne*, *Catan Junior* edo *Ubongo*.

Mercurio argitaletxeak ere plazaratu ditu euskarara itzulitako jolasak. Horra hor, esate baterako, *Sherlock Express* dedukzio jolas dibertigarria, edo aurten, Elkarrekin elkarlanean, euskarara ekarritako *La Morada Maldita*.

Tranjis etxeak ere badu euskarara itzulita etxe askotan hain ezaguna den *Virus* jolasa. Eta Zombi Paella argitaletxeak, azkenik, *Alakazum!* sorginei buruzko jolasa euskaraz ere aurkeztu du.

Beraz, aukerak asko dira ikasi, dibertitu eta lagun artean nahiz senideekin momentu ahaztezinak bizitzeko.




**TOMAS ZABALLA**
Kazetaria



# IKER ETA IXONE

Egungo haurren guraso, aitona-amona eta bestelako heldu batzuei ezaguna egingo zaizkie komiki liburu honen izena eta marrazkiak ere. Ez da harritzekoa.... 1978an argitaratu baitzen lehen aldiz...

IKER ETA IXONE
Gregorio Muro
HARRIET

Baina kontuan izanik haurrentzako komiki oso gutxi argitaratu direla azken urteetan (eta euskaraz are gutxiago) eta beraz, hutsune bat zegoela eremu horretan, **Gregorio Muro** Harriet-en lehen lana berreskuratzea behin eta berriz eskatzen zutenekin bat egin du Harriet argitaletxeak. Batez ere, konfiantza osoa dugulako etxeko txikienen irizpide onean eta eskakizun-mailan. Lehen bezala orain ere haurrek disfrutatu dezaketen formatua delako komikia, irakurtzen ikasteko prozesuan oso lagungarri izateaz gain.

Liburu honetan aurkituko dituzuen marrazkiak bere publikoarentzat (hau da, haurrentzat) oso egokiak dira, politak eta xalotasunez beteak. Istorioetan Harriet gidoigile gisa famatu egin duten osagaiak hor daude (abentura, ezustekoa...), haurrentzat egokituta, eta bere geroko lanean ohikoak diren ikuspegi eta aldarrikapenak ere presente dira: berdintasuna, naturarekiko maitasuna... Gaia ere (euskal historia eta mitologia) txikientzat oso erakargarria dela uste dugu, gaztetxoak ere mundu magiko horren parte sentitzeko modu ezin hobea bai dira istorio hauek. Azken finean, haurrentzako komiki bat izan behar den guztia da *Iker eta Ixone*.

EUSKAL MITOLOGIA
Iker eta Ixone, Mari bizi den haitzuloaren ondoko herrixkan bizi dira, *Ekaitzen mendia* deitzen denaren magalean. Herriko lagun eta bizilagunekin batera, mila abentura biziko dituzte euskal mitologiako pertsonaia fantastikoez inguratuta. Haiek ezagutu eta gure arbasoen istorioetan murgildu nahi baduzu, gure lehen hiru abenturak gurekin bizitzera gonbidatzen zaitugu: *Orrazi Magikoa / Gaizkiñe / Zahagi-urrea.*




6 urtetik aurrera

ONIN ETA KOMIKI MADARIKATUA
ONIN Y EL CÓMIC MALDITO
Ibon Martín
TRAVEL BUG




8 urtetik aurrera

# ONIN ETA KOMIKI MADARIKATUA

Ibon Martín hemen da berriro Oninen abenturen bildumako beste liburu batekin. Hamaikagarren ale honek manga komiki madarikatu baten inguruan kiribildu ditu bere orrialdeak.

Onintza naiz, baina Onin esaten didate. Hamaika urte ditut eta nire neba bikia ere badut, Erik. Denek diote oso antzekoak garela… Baina zertan nabil ni gauza hauek esaten. Honez gero denok ezagutzen gaituzue, ondo ezagutu ere! Harira joango naiz, gure abentura berriaren gainean gehiago jakin nahiko duzue eta. Gogoan duzue denboran bidaiatu genuenekoa? Trenera igo eta tuneletik irtetean, batean, Erdi Aroan geunden. Bada, oraingo honetan oso leku urruuunera joango gara trenik, hegazkinik, ezta bizikletarik ere, hartu gabe. Liburua zabaltzearekin bat…

Beharbada azkarregi noa… Hasieratik hastea komeni da. Ez duzue uste? Bada, hasiera komiki bat da, baina ez edozein komiki, komiki manga bat baizik. Badakizue, Japonian hainbeste gustatzen zaizkien horietako bat, amaieratik irakurtzen hasten denetakoa. Ezkerretik eskuinera gabe, eskuinetik ezkerrera irakurtzen dira.

Munduaren aldrebesa, ezta? Bada, kontatuko dizuet zer gertatu zitzaigun, istorio honetan ez baitira falta munstroak, ur beroko ibaiak, autobus hankadunak eta soja-saltsa ugari. Soja-saltsa barra-barra!

Eutsi gogor eta ekin irakurketari. Bidaia harrigarria hastera doa. Aho bete hortz gelditunko zara orrialdez orrialde!

Japoniar azokarako bisita amesgaiztoa bilakatu da. Sugandila inozente batek, saltsa kutsatuak eta asmakizun zoro batek komiki baten orrialdeetan gatibu utzi gaituzte. Ez dago nondik ihes egin!
Berbetan dakien sua, katubusa eta txorimalo dibertigarria ditugu bidaide. Eta ezin dugu astia alferrik galdu. Mundua arriskuan dago. Lagundu desastrea saihesten!

# ESTHER VAN DEN BERG



ARGAZKIA: BENTE POMPEN




**ESKOLAKO LEHEN EGUNA**
**GABON ETA ONDO LO EGIN!**
**IGERIKETAKO LEHEN EGUNA**
Esther van den Berg
TTARTTALO

**Esther van den Berg edo *Puikeprent* izengoitidun ilustratzailea (1982, Kanpem, Belgika) haurrentzako liburuen munduan indartsu sartu da. Ilustrazio eta grabatu ikasketak egin ostean eta hainbat lanetan ibili eta gero, liburuak ilustratzeari ekin zion eta duela bost urte hasi zen liburu ilustratuak sortzen. Tartean, Ttarttalon argitaratu dugun bilduma alai eta dibertigarri hau!**

**Zure lanak hamaika hizkuntzatara itzuli dira, kultura desberdinetako haurren gozagarri. Zerk uste duzu batzen dituela?**
Oraindik sinestezina iruditzen zait nire liburuak hainbeste herrialde eta kulturatako haurrengana iritsi izana! Nire ustez, mundu osoko haurrek komunean dutena galdetzeko gaitasuna eta irudimena da. Haurrek entzunak eta ikusiak izatea nahi dute, eta bide horretan, garrantzitsuak dira eurak identifikatzen diren liburu eta pertsonaiak.

**Argi dago animaliak gogoko dituzula. Bilduma honetako hiru protagonistak zerbait bereziagatik hautatu al zenituen?**
Adibidez, nire lehen liburua intsektu-hotel batean kokatu nuen. Xomorroek beldur pixka bat eman dezakete, eta beraz, marigorringo polit bat aukeratzea erabaki nuen protagonista gisa, beldurra baino harridura piztu nahian edo.
Igeltxoei dagokienez berriz, txikitan, hankak hazi eta igel bihurtzen ziren zapaburu txikiek liluratu egiten nindute. Nire alabarengan lilura bera ikustean liburuaren ideia piztu zitzaidan.
Hasteko, pertsonaiak identifikagarriak izan behar dute, istorioa eta transmititu nahi diren emozioak bideratuko baitituzte. Liburu batentzat ingurumaria aukeratzen denean pertsonaia nagusi gisa funtzionatu dezaketen animalien aukera logiko batzuk ere egon ohi dira. Baina batez ere, naturari fidel izaten saiatzen naiz, haurrek animaliei eta ingurune naturalari buruzko gauzak ikas ditzaten ipuinaz gozatzen duten bitartean.

**Bilduma honetako laugarren titulu batez gozatzeko aukerarik izango al dugu?**
Ideia dibertigarri bat badaukat belarri biribilak eta sudur zorrotz-puntaduna duen xomorro bidaiari baten inguruan… Beharbada nire hurrengo liburua bihur daiteke… Auskalo!

**MIREN ARREGI**
Kazetaria





ARGAZKIA: JOSU TORREALDAY

# JON MAIA

***Kantu bat gara* proiektu arrakastatsuaren ondoren, bigarren aldi emozional baterako bidea zabaldu du Jon Maiak *Kantu berri bat gara* egitasmoarekin. *Bereterretxeren Kantoria*tik Euskal Herri berrira, lur azpian doan errekasto identitario horri segika ondu du disko-liburu anbiziotsu berria.**

**Euskaldunok mendeetan arnastu dugun airearen iraupen ahalmena dago lan honetan. *Bereterretxeren Kantoria*tik dator, ahozkotasunetik jaso dugun oinordetza, identitate bat. Oilo ipurdia soineratu eta ibilbide poetiko musikal galanta da hemen proposatzen duzuna.**
Oso pozik nago emaitzarekin, zuk diozun bezala uste dut emozioen bidez mezu bat, gure buruaren ikuspegi luze eta sakon bat ematea lortu dugula.

**Emozio soka luze bat da *Kantu berri bat gara*. Oinordetza baten zigilu izateko izaera du? Identitate deitzen diogu horren mendilerroaren gailurrean iparrorratz bat, hesola bat, mugarri bat?**
Euskal identitatearen gain eginiko hausnarketa poetikoa dakar liburuak, *Beti kantu berri bat* izeneko poema luzean. Nire galdera da, ba al dakigu zer esaten dugun Euskal Herria esaten dugunean? Euskal herritarra izateko zenbat modu daude? Euskalduna izateko? Gu berri bat eraikitzeko gogoa dago, intentzio bat, proposamen bat. Euskal Identitate berriaren bila noa, oro har, nire lan gehienetan eta hau da beharbada handiena.

**Euskal Herriaren B aldea ere aldarrikatzen duzu zuk hemen, Euskal Herririk berriena, gaur egun ezagutzen duguna, gure kaleetan bizi dena, etorkin eta migratzaileek biziberritzen dutena, baina atzean geratzen dena. Gure identitate berriaren abizenak haienak direla diozu.**
Etorkinak edo euskara diktaduran edo bestelako faktore historikoengatik galduta zuten eremuetan jaio diren herritarrak ere izan daitezke. Nire kantuetan eta diskurtsoan jende hori lehenesten dut, nire iritziz defizit bat daukagulako haiekiko, guri ere kalte egiten diguna, gure zabalkundeari eta inklusibitateari. Aitorpen bat egiten diet eremu ez euskaldunetako euskaldun horiei. Hori konstante bat da nire lanetan.

> *“Euskal identitate berriaren bila noa, oro har, nire lan gehienetan eta hau da beharbada handiena”*

**Izen eta izate handiko lagunak batu dituzu kantuak gorpuzteko, baina bada kolaborazio berezi bat, Silvio Rodriguez kantautore kubatarrarena, hain zuzen. Euskaraz kantatzen entzungo dugu, gainera, lehen aldiz.**
Niretzat amets baten modukoa da **Silvio**rena eta uste dut jende askorentzat ere opari bat izango dela **Silvio** euskaraz entzutea. Munduko kantagile handietako bat da, ahots unibertsal bat, historikoa, himno asko egin dituena. Umetatik entzun dut eta orain berarekin kantatzea izugarria da niretzat. Oso eskuzabal jokatu du gurekin gainera, euskararekin ahalegin berezi hori egin izanak asko esaten du. Nik uste berak ere baduela lotura polit bat Euskal Herriarekin. **Gorka Hermosa**ren *Amore* izeneko pieza eder bati hitzak eta ahotsa jarri genizkion eta horrelaxe bidali nion, gutun batekin batera, niretzat zer den bera eta euskararentzat ere ze ederra litzateke
en berak kantatzea adieraziz. Baietz erantzun zuenean, imajinatu nolako poza. *Nostalgia* du izena kantuak eta zoragarri geratu da.



**KANTU BERRI BAT GARA**
Jon Maia
ELKAR

**Kolektibotasunaren aldarrikapena ere bada lan honen helburuetako bat?**
Izugarri erakartzen nau kolektibotasun horren eraikuntzak, ni eta gu hori ezagutzeak, ulertzeak, eraikitzeak, faktore intimoen eta historikoen txirikorda bihurri hori. Magikoa iruditzen zait.

**Lurpeko erreka kantuan "gure biziraupenaren sekretuaz" ari zara. Zein da, bada?**
Gertakizun historiko, zatiketa administratibo eta legedia guztien azpitik doan erreka. Mendez mende, belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho etengabeko katean, etengabeko eraldaketan gutariko bakoitzak barruan daramagun hitza, hotsa, doinua. Inork inoiz isiltzea lortzen ez duen kantu berri bat gara, beti. Bereterretxeren kantuak dauka sekretu hori gordea eta oraingo kantu berri guztiak haren seme alabak dira.

**ARIANE KAMIO**
Kazetaria

# KORRONTZIK *20*

**Hogei urte bete ditu aurton Korrontzi taldeak. Esaten erraza da, baina egiten… hori beste kontu bat da.**




20
Korrontzi
ELKAR

Hamarkada bi etenik gabe musikan jardutea, hamaika disko kaleratzea eta munduan barrena kontzertu andana eskaintzea ez dago edonoren esku. Orain arteko jardun horrek, gainera, uzta oparoa laga du, baita aurrera jarraitzeko asmoa hauspotu ere. Horren erakusgarri da *20*, hamarkada biotako lana biribiltzera datorren asmo handiko disko berria, Korrontziren ibilbidean hamabigarrena.

Disko honetan **Agus Barandiaran**en taldeak bere izatearen muinari heldu dio berriz ere, kalitate handiko kantu sorta ondu arte. Alegia, trikitia astindu dute eragin garaikideak txertatu dizkioten bitartean. **Luis Peixoto** portugaldarrak lagundu du diskoaren produkzioan.

Emaitza, beste behin, ikusgarria da: hogei abesti zoragarri, taldearen errepertorioko ezinbestekoak, eta hiru abesti berri, *bonus track* modura; guzti hau hornituz, hogeita hiru kolaboratzaile bikain, kantu bakoitzari benetako ekarpena egiten dioten gonbidatuak: **Phil Cunningham**, **Michael McGoldrick**, Luar na Lubre galiziar taldea, ETSko **Iñigo**, Gatibuko **Alex Sardui**, **Tapia** eta **Leturia**… Korrontzi zer den jakin nahi duenak, disko honetan aurkituko du inoizko argien.

Disko berria Bilbon aurkeztuko dute abenduaren 26an, Campos antzokian. Sarreren salmentaren bidez lortuko den dirua Zaporeak GKErentzat izango da.

**Agus Barandiaran**en taldeak musika-korrontziarekin segitzen du. Jarioa gero eta emankorragoa da, Euskal Herriko kulturaren arloa ongarritzeko eta fruitu berriak emateko lain. Trikitixaren doinuak bide zaharrak eta era berriak batera jorratuz dabiltza, beharbada txapela jantzi barik buruan, baina gelditu gabe ibiliz munduan. Urte askotarako, Korrontzi!






+2



**ZAZPI MUNSTRO ETA KATU BAT**
Rafa Ordoñez
PAMIELA/ KALANDRAKA

Banpiro bat, zonbi bat, mamu bat, sorgin bat, momia bat, gizotso bat, Frankenstein munstroa eta. . . katu bat! Nora joango ote dira?



**ORRO. OIHANEKO ANIMALIAK**
Georgette
TTARTTALO

Baina, zer zalaparta oihanean! Krokodiloak klak klak egiten du, elefanteak zurrust zurrust, loroak kra kra. . .

+2



**NON EGITEN DUZU LO?**
Agnese Baruzzi
TTARTTALO

Hontza, esnatzearekin batera, etorri da gabon esatera. Ondo lo egin eta amets politak izan! Oheratzeko uneari buruzko lehen liburua.



**CEREBRO DE MONITO**
Elisa Molina
CARAMBUCO

El cuento para descubrir nuestro cerebro. ¿Sabías que, desde que nacemos, nuestro cerebro no para de crecer? Lucía descubrirá que, ahora mismo, su cerebro se parece al de un monito.



**MINIENIGMAS DE NAVIDAD**
Víctor Escandell
ZAHORÍ IDEAS

Lee las pistas, presta atención a las ilustraciones y levanta las solapas para descubrir las respuestas. Un libro lleno de sencillos enigmas sobre la Navidad e ilustraciones detalladas y rebosantes de pistas.



**GOSE BIZIKO BELDARRA**
Eric Carle
PAMIELA/ KALANDRAKA

Igande eguzkitsu batean, beldar bat jaio da arrautza batetik. Txikia da, baina gose handia du. Hori dela eta, egunez egun ibiliko ditu liburu honetako orrialdeak, eta haiek zulatuko, bidean aurkitzen duen guztia janez.

+6



**IMMIGRANTEAK**
Marcelo Simonetti
PAMIELA/ KALANDRAKA

Bi umek eskola eguna amaitzean jaso dute albistea, biharamunean bi immigrante helduko direla ikasgelara. Immigranteak? Hitz hori entzuten duten lehen aldia denez, esanahi posibleetan pentsatzen igaroko dute iluntzea.



**OSPA HEMENDIK!**
Ane Arzelus
EREIN

Ortuko bizitza bildumaren seigarren atala da. Ortuan topa daitezkeen, eta kaltegarriak izan daitezkeen animalia eta bereziki zomorroen inguruko liburua.



**MOZTRUOS 3. NOCHE DE CAMPAMENTO**
Pedro Mañas
SM

Mumus y sus amigos tienen vacaciones, ¡yujuuu! Montar un campamento en el jardín del internado Escalofríos es una idea estupenda para disfrutar de ese día, pero ¡Franny, su archienemiga, pretende impedírselo!



**¿DE QUÉ ESTÁ HECHO EL AMOR?**
Tania García
HARPERKIDS

Tania García nos sorprende con una fábula inspiradora que nos enseña que el amor es lo más importante, incluso en las adversidades.



+6



**UNA LATA EN EL BOSQUE Y OTRAS HISTORIAS SOBRE LA EMPATÍA**
Susanna Isern
FLAMBOYANT

Historias encadenadas por sus personajes, ideales para leer individualmente o como una narración continuada, donde los niños y niñas verán y entenderán qué supone ponerse en el lugar de los demás.



**KATTA 20. BELDURREZ**
Miren Agur Meabe
ELKAR

Katta eta lagunak gaztelu batean sartu dira. Han, mamu batek laguntza eskatu die madarikazio bat apurtzeko. Dorrera igo dira eta..

+8



**EZ DUZU SINETSIKO**
Aintzane Usandizaga
TXALAPARTA

Jonek, aitaren etxera bolada batez aldatuta, bere adineko auzokide berri bat du: Samira. Etorri berria ez bezala, hizlaria da Samira, eta berehala hasiko zaizkio eskolakoak eta lagunei buruzkoak kontatzen.



**ANNA KADABRA 6. PASTEL ARRISKUTSUAK**
Pedro Mañas
TRAVEL BUG

Ilargi Betearen Klubeko ikasleek beren lehenengo sorginkeria-azterketak egin behar dituzte. Zoritxarrez, Annari trabatuta geratu zaio Sukaldaritza Magikoko irakasgaia. Plater guztiak gaizki ateratzen zaizkio!

+10



**GO!AZEN. LONDONEN GALDUTA**
Lur Gallastegi
ALAI

Go!azen telesaileko protagonistak musika jaialdi batera joan ziren. Maddik ikusi zuen iragarkia, eta Unax konbentzitu zuen bideoa grabatu eta bertara bidaltzeko. Ikaragarri poztu ziren onartuak izan zirela jakin zutenean.



**AZKEN DENBORA**
Nerea Loiola
EREIN

Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu Eskapu bildumako bigarren liburu honetan ere; arrisku arriskutsuagoak, dilema korapilatsuagoak eta abentura zirraragarriak.

+12



**MESES A TU LADO 4. LAS LUCES DE FEBRERO**
Joana Marcús
MONTENA

Ellie Ross vive por y para el baloncesto. ¿Su objetivo? Ser la primera chica en el equipo de su ciudad. ¿Su mayor obstáculo? Víctor, con quien no habla desde los quince años y con quien no terminó nada bien.



**ROYALTY WITCHES 2. EL BAILE DE LOS SECRETOS**
Laia López
ASTRONAVE

En Taika, los tronos no se heredan, se ganan. Kat, Emma, Lilith y Kibibi han pasado al siguiente ciclo de la Liga de la Corona, pero han perdido algo muy valioso: Shin, el indómito de su aquelarre y su gran amigo.

+12



**HISTORIAS DE MUJERES SAMURÁIS**
Sebastien Perez / Benjamin Lacombe
EDELVIVES

El arte del combate y el código de los samuráis japoneses son fascinantes. Sin embargo, apenas se conoce que existieron guerreras formidables, mujeres que escaparon del rol que la sociedad les reservaba.



**UN ALMA DE CENIZA Y SANGRE**
Jennifer L. Armentrout
PUCK

Jennifer L. Armentrout repasa la épica historia de amor entre Poppy y Casteel en este nuevo volumen de la saga *De sangre y cenizas*. Pero, en esta ocasión, es Hawke quien tiene la oportunidad de contar la historia.



**QUEEN KONG**
Helene Vignal
ELKAR

Telefonoa sutan dauka eta bera da su-metan jarri dutena. Ondo daki nola funtzionatzen duen honek. Badaki guztiaren oinarria bera lintxatzeko irrika dela. Izango ote da honi guzti honi eusteko kapaz? Egiaren ordua da.



**PARA BELLUM**
John Andueza
ELKAR

Euskal Herrian ia ehun urtez luzatu den gerra batek ondorio latzak utzi ditu etxe askotan. Etxe gehiegitan. Elgetako Txapartegi eta Otalora baserrietan, kasu, umetako lagun minak aspaldi hasi ziren elkarren kontra.



# NOBEDADEAK

## *liburuak*



**IRIS 22**
Yurre Ugarte / Julen Ribas
TXALAPARTA

Kateaturiko hondamendi multzoen ondotik, XXII. mendean, Numun gizartea sortu dute kokaleku ezezaguneko irlan, landare luminiszenteen argitan. Iraganetik kutsadura, plastikoak eta liburuak besterik ez zaie iritsi.



**EMAKUME IZOZTUA**
Annie Ernaux
ELKAR

Hogeita hamar bat urte ditu emakumeak: irakaslea da, lanpostu on bat duen senar batekin ezkondua, bi ume, etxe atsegin bat… Alabaina, izozturik dago.



**ITZULERAK**
Miren Agur Meabe
ELKAR

1569 urtea. Garaitzeta sutan dago. Sugarretatik ihesi hamabost urteko Estefana Garrax uhartera iritsi da. Bertara iritsi dira Miriam Otalora eta Katalin eta Gontzal seme-alabak, Haize-Begi familia-etxera, 450 urte geroago.



**DINOSAURS SANTUARY 3**
Itaru Kinoshita
KABE

Zatoz gure Dinosauroen Santutegira, munduko zoologikorik zoragarriena, non ez dagoen askaria izateko arriskurik.



**LOAK EZKUTATZEN DUENA**
Patxi Zubizarreta
ELKAR

Insomnioari buruzko erreportaje bat egin behar du Adelak, lan egiten duen aldizkariarentzat, eta horixe izango da eleberriaren abiapuntua, gero hainbat pertsonaia, sare eta abarretan korapilatuko dena.



**PUTA GORDA**
Yolanda Larreategi / Helena Azkarraga
EREIN

Hori zara zu, puta gorda bat. Ez zara puta bat, ez zaude lodi, baina horrela deitzen dizute. XVII. Peru Abarka album lehiaketaren irabazlea.



**BEGIAK EMAN NIZKINAN ETA ILUNPEEI BEHATU HIEN**
Irene Solà
ALBERDANIA

Mendi malkartsuen artean, otso-ehiztariak, lapurrak, iheslariak, karlistak, belagileak, makiak, rally-pilotuak, mamuak eta deabruak baizik iragotzen ez diren ezleku batean, lurrari kaparren moduan lotua ageri da mas Clavell etxea.



**PERSEPOLIS**
Marjane Satrapi
ELKAR/ RESERVOIR BOOKS

Marjane Satrapi ilustratzaile irandarraren komiki-lan ospetsua, komikigintzaren historian klasiko bilakatu zen 2000 urtean argitaratzen hasi zenetik. Irango Iraultza islamikoa kontatzen du lehen pertsonan.



**ZAKUR ZAUNKAK**
Iñaki Irazu
SUSA

Gerra garaiko kontuak eta ondoko urteetako behe-laino beltza datoz Iñaki Irazuren bigarren poema liburuan, inoiz utzi gabeko lekuetara eta inoiz agurtu gabeko jende batengana itzulera bat.



**BI ALDIZ IRAUN**
Oihane Zuberoa Garmendia Glaria
BALEA ZURIA

*Bi aldiz iraun* Oihane Zuberoa Garmendia erronkariarraren bigarren poema-liburua da. Memoria eta gaitza ditu ardatz, gogoratzeko nahiaren eta ezinaren arteko borroka, hurbileko objektuak eta jakiak eta mundu klasikoa.






### BI ANAI
Bernardo Atxaga
EREIN

Etengabe errepikatzen den naturaren eta bere sasoien gurpilean Paulo eta Daniel bi anaien istorioa kontatzen digute txoriak, katagorriek, sugeak, izarrak eta antzarak. Emaitza paregabea da. Artista handi baten lana.




### EGURALDIAREN EUSKARA. ARO-BIDAIA EUSKAL HERRIAN BARRENA
Kepa Diegez
ALBERDANIA

Liburu honek protagonista behinena du bere baitan: aro-bidaiaria. Denbora-bidaiari batek ez bezala, hark ez du atzera-aurrera egiten denboran barrena, baizik eta beti aurrera, herriz herri, arotitz –eguraldiari buruzko hitz– bila.




### ETXEBIZITZAREN AUZIA
Fiedrich Engels
KATAKRAK

Engelsen aburuz etxebizitzaren arazoa ez zen konponduko kooperatibistek, higienistek edota burgesiak haien txostenetan proposatzen zituzten neurriekin, arazoa ekoizpen-modu kapitalistan errotuta zegoen.




### TXIKIA. UR HANDIAK EREITEN
Iñaki Egaña
TXALAPARTA

50 urte bete dira Mendizabal hil zutenetik, eta Franco hil aurreko etapatik gehien gogoratzen den ETAko kideetako bat da. Militante, euskaltzale eta idazle gailena izan zen, iratzartze nazional baten garaiko protagonista.




### NEURE JUGOSLAVIA, HAIN ULERTU GABEA
Koldo Tellitu
KOLDO TELLITU

Liburu honetan egileak lehenengo Jugoslaviako esperientzia autogestionario sozialistaren hainbat eremu errepasatzen ditu. Ondoren, Jugoslaviako leku esanguratsuak jorratzen ditu.




### FEMINISMO ZURIAREN AURKA
Rafia Zakaria
ELKAR/JAKIN

Klase ertain eta altuko emakume zuriak luzaroan hartu izan dira, feminismoari dagokionean, aditutzat. Feminista zuria da zuritasunak eta arraza pribilegioek eskaintzen dizkion ikuspuntua onartzeari uko egiten dion feminista.




### JUANA
Jon Artano Izeta
ELKAR

Juana Perea Plata da liburu honetako protagonista, 1937an Bilbotik ihesi Bogotara iritsitako familia batean jaiotako ardi beltza, legendazko emakume bat. Jon Artano kazetariaren lehenengo liburua da, Tene Mujika bekaren irabazle.




### PLANETA PREKARIOAN. XXI. MENDEKO KRISI ETA ERRESISTENTZIEN KRONIKA
Pello Zubiria Kamino
ARGIA

2002an hasi eta hogei urtez Pello Zubiria Kamino kazetariak Argiako Net Hurbil sailean idatzitako ehunka artikuluren aukeraketa honek gaurko eta biharko mundua hobeto ulertzeko balio dezake.



# NOVEDADES

## *libros*




### SOBRE LA LOSA
Fred Vargas
SIRUELA

Poco después de que el comisario Adamsberg haya regresado a París tras cerrar un caso en Bretaña, la policía de Rennes le pide ayuda para resolver un crimen que parece guardar relación con una oscura leyenda local.




### MELINA
Juan Ramón Lucas
CONTRALUZ

Melina, hija de la Asturias minera y revolucionaria de 1934, nace cuando no debe y donde no se la espera: en la víspera de una guerra civil y en un seno familiar atormentado por la maldición y el desafecto del padre.




### LOS RADLEY
Matt Haig
ALIANZA

Los Radley solo quieren ser una familia normal en un vecindario normal. Solo son un matrimonio con desavenencias, dos hijos adolescentes y un tío insensato. Todo de lo más corriente, salvo por el pequeño detalle de que son vampiros.




### LA ARMADURA DE LA LUZ
Ken Follet
PLAZA&JANÉS

Vuelve el mejor Follett con la emocionante quinta entrega de la saga *Los pilares de la Tierra*. El choque de progreso y tradición y una guerra que amenaza con engullir toda Europa en la más ambiciosa y épica novela del maestro de la ficción histórica.




### EL CIRUJANO Y EL PASTOR. RESISTENCIA AL NAZISMO EN LA SELVA DE IRATI
Meg Ostrum
KATAKRAK

Entre 1942 y 1943, el gran hayedo de la Selva de Irati, entre la Francia de Vichy y la España de Franco, se convirtió en el paso clandestino de quienes escapaban de la guerra y la tiranía hacia Inglaterra.




### TODO VUELVE (TODO ARDE 2)
Juan Gómez-Jurado
BEDICIONES

Todo lo que Aura Reyes necesita es continuar con vida diez minutos más. No es tarea fácil. Las otras son cuatro, son más fuertes y ella –una figura acorralada en el patio de la cárcel– nunca ha sabido defenderse demasiado bien.




### LOS CHICOS DE BILOXI
John Grisham
PLAZA&JANÉS

Dos amigos de la infancia. Dos familias. Dos lados opuestos de la ley. Un apasionante thriller en el que Grisham lleva su relato a otro nivel, con personajes memorables y giros inesperados hasta su asombroso final.




### EL INFIERNO
Carmen Mola
PLANETA

Un espeluznante levantamiento del ejército contra la reina Isabel II tiñe de sangre y muertos las calles de Madrid. El pueblo lo llama la sargentada y el horror campa por toda la ciudad.




### LA CHICA DEL VERANO
La Vecina Rubia
LIBROS CÚPULA

Con *La chica del verano* concluye la saga *Verano*. Una historia que nos ha llevado por el camino de una adolescente rubia muy especial que se ha convertido en mujer y en el personaje anónimo que la acompañará para siempre: la Vecina Rubia.




### EL PRIMERO EN MORIR
James Patterson
RBA

Una pareja de recién casados celebra su noche de bodas. No saben que será la última de sus vidas. Al día siguiente, Lindsay Boxer, inspectora de Homicidios de San Francisco, examina la escena del crimen.






## LA MECANÓGRAFA DE HITLER
Teresa Harris
NEWTON COMPTON

Katja Heinz acaba de comenzar a trabajar como asistente del doctor Viktor y su principal tarea consiste en mecanografiar las notas médicas resultantes de sus sesiones.




## RENCOR
Gianrico Carofiglio
DUOMO

Un rico y poderoso profesor universitario muere repentinamente: causas naturales, certifica el médico. Su hija recurre a Penelope Spada, una detective sin licencia con un misterio a sus espaldas y una silenciosa desesperación.




## LA CIUDAD DE LA PIEL DE PLATA
Félix G. Modroño
DESTINO

Una envolvente novela que nos lleva del Bilbao de los años sesenta hasta el inicio de su gran transformación a finales de los noventa con el Guggenheim. Cierra la exitosa trilogía de Modroño sobre la ciudad.




## LA CONSTANTE PICASSIANA
Jordi Serra i Fabra
CATEDRAL

Londres. Magda Ventura entrevista en la prisión de Wormwood Scrubs a Lucien Girardot, el último Hombre Araña, el más famoso ladrón de obras de arte, acusado de robar siete pequeños cuadros de Picasso.




## EL BOTÍN
Julián Zugazagoitia
TXALAPARTA

En la que fuera su más aclamada novela, Julián Zugazagoitia traza un retrato de la sociedad vasca en los tiempos de la Primera Guerra Mundial.




## UNA PANDILLA DE VILLANOS EN SINGAPUR
Shamini Flint
AMOK

El inspector Singh está de vuelta en Singapur, pero le gustaría estar en otra parte. Su mujer no le da respiro, y sus jefes le recuerdan que es una deshonra para el cuerpo. Afortunadamente para Singh, los malvados no descansan.




## LOS PAPELES DE ADMUNSEN
Manuel Vázquez Montalbán
NAVONA

Admunsen, alter ego de Vázquez Montalbán y protagonista de la novela, es un joven intelectual frustrado entre las demandas alienantes de la sociedad de consumo, la realización personal y la conciencia política.




## MAÑANA Y TARDE
Jon Fosse
NÓRDICA LIBROS

*Mañana y tarde* es una novela breve e inolvidable, sobre el nacimiento y la muerte, escrita por uno los grandes narradores y dramaturgos europeos de las últimas décadas. Ganador del premio Nobel de literatura 2023.




## DE LOS VASCONES AL REINO. LA HISTORIA MENOS CONOCIDA DE NAVARRA: SU DEFENSA
Iñaki Sagredo
PAMIELA

Este libro, que tiene su origen en *Cuando fuimos navarros*, trata de las diferentes etapas históricas de Navarra, especialmente el periodo que va desde los vascones hasta la conformación de reino.




## LOS CONTEMPLATIVOS
Pablo D'Ors
GALAXIA GUTEMBERG

Con tanto humor como lirismo, con tanta ligereza como profundidad, en *Los contemplativos* se abordan las grandes cuestiones del autoconocimiento y del crecimiento personal.




## LA MUJER QUE SOY
Britney Spears
PLAZA&JANÉS

Escritas con una franqueza y un humor extraordinarios, las impactantes memorias de Spears ilustran el poder imperecedero de la música y el amor, y la importancia de que una mujer, por fin, cuente su propia historia, en sus propios términos.




## DOLLY PARTON
Beatriz Navarro
RBA

La vida de Dolly Parton es un manifiesto feminista con tacones de 15 centímetros. Nacida en una cabaña sin agua corriente ni electricidad en los montes Apalaches, Dolly Parton es el sueño americano.



# NOBEDADEAK

## musika




### RAIN
Martins Aneiros Band
GAZTELUPEKO HOTSAK

*Rain* benetako logikatik asmatutako lana da, blues, soul, rock edo funk estiloak erabiliz. Martins Aneiros Band doinua berez dakarten musikariek osatutako taldea da, koherentea, arrakasta beti nor bera izatean datzala dakiten horietakoena.



### OHARTU
Habi
ELKAR

Jon Ander Artolak (bateria) eta Yeray Gasconek (ahotsa eta gitarrak) Elkar estudioan grabatu dute, Victor Sanchez taldeko hirugarren kidearen laguntzaz. Emaitza, *Ohartu*, inoiz baino zuzenagoa eta rockeroagoa da. Talde bikaina da Habi.




### BAS(H)OAN II
Batzuk
ELKAR

Robbi Basho (1940-1986) musikari estatubatuarraren lana Bas(h)oan diskoan islatu zuten Beñat Achiaryk, Joseba Irazokik eta Julen Achiaryk. Disko haren segida da honako hau, Oihan Oliarjines baxujolearen ekarpenarekin.




### SIGO REGANDO
Belako
WARNER MUSIC

Mungiako taldearen bosgarren diskoan ingelesa, euskara eta gaztelania nahasten dira. Heldutasunera iritsi den banda baten lana da, ibilbide luzea egiteko gauza dela erakutsiz, norabidea behin ere galdu barik.




### CALDO ESPIRITO
Xoel Lopez
SONY-BMG ARIOLA

*Caldo Espírito* son once temas que vuelven a las raices de Xoel López, haciendo guiños a los tiempos de Deluxe, sin dejar de lado sus característicos sonidos latinos.




### ZER OTE DA?
Kuttune
ELKAR

Artziniegako Nerea Quincocesek gidatzen duen folk taldearen bigarren lana da *Zer ote da?*. Euskal folklorean oinarritutako eta alboko kulturekin zein munduko musikekin fusionatutako konposizioak dakartzate euren errepertorioan.




### SEPTIEMBRE
Mikel Erentxun
WARNER MUSIC

El músico donostiarra regresa con un nuevo disco con sonidos vinculados a los años setenta del siglo XX. Canciones creadas al piano, y no a la guitarra como acostumbra, y que emocionan con un seductor viaje al pasado.

## DVD-AK




### NATURAREKIN DANTZAN! (DVD+CD)
Ene Kantak
ENE KANTAK

Bere bederatzigarren diskora heldu da Ene Kantak. Oraingo honetan hamazazpi doinu berri bildu dituzte, bideoklip eta koreografiekin. Naturarekin dantza egin dezagun!




### BLACK IS BELTZA 2. AINHOA
Fermin Muguruza
ELKAR

*Black is Beltza*ren bigarren atalak Ainhoa du protagonista. Munduan barrena ibiliko da XX. mendeko 80. hamarkadan, garai hartako Euskal Herria zertan zen erakutsiz.




### 20.000 ESPECIES DE ABEJAS
Estibaliz Urresola
KARMA FILMS

Cocó, de ocho años, no encaja en las expectativas del resto y no entiende por qué. Todos a su alrededor insisten en llamarle Aitor pero no se reconoce en ese nombre. Llega en dvd la película vasca premiada en el festival de Berlín.









+4

## ROCK BAND

DJECO

Rock Band es un juego de cartas de estrategia con extravagantes animales que aman la música... y la comida.

+6




## ESPAZIOA - EGUZKI SISTEMA

MANOLITO BOOKS

Espazioan ibili nahi duzu abentura bila astronauta baten pare? Osatu puzzle honetako 205 zatiak, irakurri liburua eta ikasi gure unibertsoaz jakin behar duzun guztia!

+6




## MYSTERIUM KIDS: EL TESORO DEL CAPITÁN BU

LIBELLUD

Mysterium es un juego cooperativo para encontrar un tesoro oculto en una vieja mansión. Todos los jugadores ganan o pierden juntos.

+7




## MISIÓN SUBACUÁTICA

HABA

Ozeanoan barrena ibili eta ur sakonetan murgildu zaitez itsaso azpian bizi diren animalia harrigarriak ezagutzeko.

+7




## LA MORADA MALDITA

MERCURIO

Erronka harrigarriak, madarikazio barregarriak eta bestelako oztopoak gainditu beharko ditugu harribitxiak lortu nahi baditugu. Jolas hau euskaraz ere dator.

+8




## MARTES 13

TRANJIS GAMES

Gatos negros, espejos rotos, escaleras... Si eres una persona supersticiosa, esto te sonará familiar.

+10




## SMART 10

SD JUEGOS

Juego de cartas donde los jugadores se verán sometidos a una intensa batería de preguntas que tendrán que responder de la forma adecuada para poder ganar la partida.




elkar
ZORIONAK!